KIROLA: BERGARA-MONDRA DERBIA ZAPATUAN AGORROSINEN /10

Goienkalea

EGUBAKOITZA • 2005eko urtarrilaren 21a • V. urtea • 184. zenbakia • DOAN BANATZEKOA

KULTURA

Danbakatik kanpo geratu zirenen kontzertuak /15

PELLO ZABALA / FRANTZISKOTARRA

"Erromakoa bezain eliza da Donostiakoa, Bilbokoa edo Iruñekoa eta ordezkari bat du bakoitzak" **/8**

Goienka2a

Etxeko bitxigintza, gurean boladan dagoen denbora-pasa

Debagoieneko txakolin berria aurkeztuko dute domekan Angiozarren

Getariako jatorri izenaren barruan dauden txakolindegiek Getariako Txakolin Eguna ospatu zuten astelehenean Getarian. Urte ona izan da 2004a txakolinarendako. Hori diote, behintzat, Getariako jatorri izenaren barruan dauden txakolin egileek eta baita gure ibarrekoek ere. Izan ere, gurean ere bada txakolin egilerik. Lau dira, hain justu ere, aurten ere txakolina egingo dutenak. Horietako batek, Hegiaundi baserrikoak, Kataide txakolin berria aurkeztuko du domekan Angiozarko Parteitti auzoko jaietan. **/4**

ASTEKO GAIA: GURASOAK ETA ADITUAK, KEZKATUTA

Gero eta ume lodi gehiago ibarrean

Loditasuna ez da estetika arazo soila: gaixotasun larria da. Gurean ere gero eta gehiagok dute, eta umeak ez dira kanpoan geratzen. Datuak kezkatzeko modukoak dira: Eskualde Ospitaleko haur endokrinologia sailaren kontsulten %65 gai horren gainekoak dira. Konponbidea ez da erraza, baina egin daiteke. **/2-3**

■ *Haur endokrinologia saileko kontsulta gehienak gaitz horren gainekoak dira*



IKER BARANDIARAN

Deba ibarreko hiztegia egin du Elexpuruk

Bergara aldeko hiztegia, Leintz-Aramaio, Oñati eta Eibar inguruko berbekin osotuta izeneko liburua aurkeztuko du Bergarako Udalak otsailaren 11n. Juan Martin Elexpuruk idatzi du liburua. Deba ibarreko berbak jasotzen ditu hiztegiak, esanahia azalduta eta adibideak jarrita. Gainera, hainbat hitzen marrazkiak eta argazkiak ere badakartza, berbekin azaldutakoa laguntzeko. Liburua, esan bezala, otsailaren 11n aurkeztuko dute, eta orduantxe ipiniko dute salgai, seguruen 30 euroren bueltan. 2.000 ale argitaratu dituzte. **/5**

BERGARA

Tavexeko bulegoak jarri nahi dituzte Gabiria Dorrean

Gabiria Dorrea berritzeko aukera aztertzen ari dira Bergarako Udala eta Tavex enpresa. Akordioa egiten badute, bien artean berrituko dute Gabiria Dorrea, eta Tavexek San Antonion dituen langileen bulegoak bertan kokatuko dira. Udalak berritze lanen %50 ordainduko du eta beste erdia Tavex enpresak. Aurrekontua 1.500.000 euro inguru izan daiteke, Udalaren arabera. Udalak jarraituko du dorrearen jabea izaten, eta Tavexek epe jakin baterako izango du Gabiria Dorrea erabiltzeko eskubidea. **/7**

ARRASATE

Futbol eta errugbi zelaiak eta tenis pista bi Mojategin

Aurten hasiko dira Arrasateko kirol instalazio berriak egiten. Betiere, udalbatzarrak onespena ematen badio lanen proiektuari. Instalazio berriekin, zenbait kirol modalitatetan dauden gabeziak bete nahi dituzte. Hain zuzen, zera egin nahi dute: futbol zelai berria, haren ondoan atletismoko pista, errugbi zelaia, skate-park bat, tenis pista bi, paddlelean jokatzeko bi gune, urruneko agintedun ibilgailuekin ibiltzeko lekua eta bestelako eranskinak (taberna, gimnasioak, biltegia...). **/7**

DEBAGOIENA/4-5 • IRITZIA/6 • HERRIZ HERRI/7 • KIROLA/10 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • ESKELAK/20 • HARPIDEDUNEN TXOKOA/21 • TELEBISTA/22

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2005eko urtarrilaren 21a

Ume-endokrinoaren ka

- Debagoienean gero eta ume gizen gehiago dago
- Jateko ohitura txarrak dira kasu gehienen zergatia
- Familia osoak aldatu behar ditu ohiturak, ez umeak bakarrik

LEIRE KORTABARRIA

Gizentasuna da 21. mendeko izurritea. Hala diote adituek, eta hala baieztatzen du egunetik egunekoak. Eta gauzarik larrienetako bat da helduez gain gero eta ume gizen gehiago dagoela, eta etorkizuna ez datorrela horiendako batere ondo, umeek eta gurasoek arazoari laster eusten ez badiote.

Debagoieneko datu bat ematearren, esan dezakegu Eskualde Ospitaleko Pediatria saileko Endokrinologia azpisailaren kontsulten %65 ume loditasunaren gainekoak direla. Saila bera ere berria da: apropos sortu behar izan zuten orain sei bat urte, eta gero eta kontsulta gehiago dituzte horren gainean.

JAIOTZEN DENETIK JARRAITU

Argi dago arazoa areagotuz doala. AEBetan aspalditik da epidemia umeen loditasuna; baina Debagoienean nahiko berria da. Bi faktorek elkar topatzen dute horretarako: genetikoak eta bizimoduaren gainekoak.

Geneek zerikusi handia dute. Carlos Canduela Eskualde Ospitaleko Pediatria buruaren esanetan, "umearen guraso bat gizena bada, umeak lau aldiz arrisku handiagoa du gizena izateko; bi gurasoak badira, zortzi aldiz handiagoa". Hala ere, genetikak askoren aurka egiten duen arren, lagungarri ere izan daiteke gaitza antzemateko orduan, Amaia Diaz de Monasterioguren elikaduran adituak dioen moduan: "Ez da ona pisu egokiaren gaineko indizeak erabiltzea; onena da umeari jaiotzen denetik begiratzea. Hasieratik jakin daiteke gutxi gorabehera zelakoa izango den, eta pediatrarenean edo ikastetxeetan egiten diren errebisioetan, datu horiek kontuan hartu behar dira eta, arazoa antzematen denean, zerbait egin".

OGITARTEKOA BARIK, LITXARRERIAK

Baina genetikak kasuen %30 bakarrik eragiten du; ibarrean gero eta ume gizen gehiago egotea bizimodu aldaketak azaltzen du. Kontsultatutako adituek aho batez esaten dute "alderantziz" egiten ditugula otorduak, baita umeek ere, noski. "Erregeak bezala gosaldu, printzeak bezala bazkaldu eta eskaleak bezala afaldu behar dugu; eta hain justu kontrakoa egiten dugu. Umeek gosari osoa egin behar dute, esneki, fruta eta zereal pieza banarekin. Horrek energia emango die egunа hasteko, eskolan adi egoteko eta lasai egoteko". Aditu horren esanetan, hain justu larregi afaltzen dutelako, ume asko gose barik jaikitzen dira.

Horrez gain, jateko beste ohiturak ere aldatu egin dituzte umeek. "Aurretik prestatutako jakiak, litxarreriak... hemengo dietaren lekua hartzen joan dira. Horrez gain, ume askok telebista aurrean jaten dute, eta, era berean, horrek otorduetatik kanpo gehiago jatea eragiten du. Lehengo txorizo edo gazta ogitartekoa desagertu egin da", dio Carlos Canduela pediatrak.

Bazkarian eta afarian hartzen dituzten elikagaiek oreka gorde behar dute, eta elikagai mota berbera ez errepikatu. Umeak ikastetxean jaten badu ere egin daiteke hori; izan ere, jangela-zerbitzuek gurasoei menua jakinarazten diete eta afarirako aholkuak ematen dizkiete. Horrez gain, umeak medikuak antzemandako osasun arazorik badu –loditasuna kasu–, menu berezia eska dezake.

Eta alboratu behar den uste faltsu bat da ume lodia hala dagoela larregi jaten duelako: arazoa ez da larregi jatea, baizik eta janaria zelakoa den: koipe handiko elikagaiak baztertu egin behar dira, hortaz.

FAMILIA OSOAREN LANA

Gizentasunak eragin handia izango du umearengan; arazo fisikoak, oraingoz, ez ditu izango, baina horiek denbora kontua dira; eta ondorio psikologikoak, aldiz, azkar sumatuko ditu. Arrazoi asko dago, hortaz, lehenbailehen konponbidea bilatzeko.

Horretarako lehen pausoa da gurasoak arazoaz jabetzea, eta konturatzea gizentasuna ez dela

Euskal Herriko sukaldearen ordez, aurretik prestatutako jakiak eta koipe larregi dutenak gero

CARLOS CANDUELA / ESKUALDE OSPITALEKO PEDIATRIA BURUA

"Konponbidea da umea bera arazoaz konturatzea"

Eskualde Ospitaleko Pediatria sailera gero eta ume eta guraso gehiago joaten da, umeen larregiko pisua dela eta. Carlos Canduela sail horren arduradunaren esanetan, tratamenduaren funtsa da "jaten ikastea".

Zer gertatzen ari da ume loditasunarekin?

Gero eta arazo larriagoa da. Ospitalean, kontsulta kopurua igo egin da azken urteotan, eta kasuen gehiengoa horren gainekoa da. Umeen %5 lodiak dira, eta nerabeen %10-15 bitartean.

Zergatik dago orain kontsulta gehiago?

Gehiago arduratzen gara gure osasunaz eta itxuraz. Lehen, umea lodi egotea osasun onaren adierazle bezala ulertzen zen; orain, ez. Loditasuna 6 urtetik aurrera antzeman daiteke. Ospitalean, adin horretatik 14 urte artera dauzkagu.

Hortaz, gurasoak badira arazoaren jabe?

Batzuei kosta egiten zaie oraindik. Umea lehen aldiz etortzen zaidanean, eskatzen diot astebetez idatz dezan jan eta edan duen guztia. Gurasoei galdetzen diedanean, esaten didate normal-normal jaten duela, eta esaten didate afaltzeko arrautza frijitua eta sei saltxitxa jan dituela... Umeak eurak, batzuk konturatzen dira arazo bat dutela, baina beste batzuk oraindik ez dira konturatzen.



Carlos Canduela pediatra.

Zein tratamendu dauka umeen loditasunak?

Tratamendua konplexua da, alderdi askotatik eragin behar zaiolako gaitzari. Nik umeei esaten diet ez diedala tratamendu bat ipiniko, jaten irakatsiko diedala baizik. Bizimodu aldaketa eskatzen du, eta nork bere buruari mugak ipintzea. Arazo horren konponbidea dator umea bera arazo bat duela konturatzen denean; ordutik aurrera, bizitza osoan ohitura batzuei eutsi behar diete.

Ume diren bitartean, zein ondorio ekartzen dizkie lodi egoteak?

Adin horretan, ondorioak psikologikoak dira, batez ere: umeak krudelak izaten dira eta berehala baztertzen dute lodi dagoen umea. Autoestimu arazoak izaten dituzte, gainera, ikusten dutenean ez direla besteak bezain bizkorrak, fisikoki.

Baina gorputzeko osasunean eragin txikia du oraindik lodierak. Ondorioak adinarekin batera etorriko dira: bihotzeko arazoak, artrosia, endokrinologia arazoak –adibidez, diabetesa izateko arrisku handiagoa dute...–, eta beste batzuk. Arazo horiek heldutasunean izango dituzte, ez nagusiak direnean. Konparazioa da 10-13 kilo edo gehiagoko motxila bat gau eta egun eramatearena: soberako pisu hori eraman dezakete gazteak diren bitartean, baina, urteen buruan, sumatuko dute gorputzari esfortzu handiagoa eginarazi diotela.

asuen %65, loditasuna

MIKEL ARROIABE

eta gehiago jaten dituzte ume debagoiendarrek.



ONDO JATEKO AHOLKU BATZUK

Dieta askoren akatsa da noizbehinka jatekoak sarri jaten direla (gozokiak, koipeak, litxarreriak…); okela gorri larregi ere jaten dugu; eta ogia, arroza, patatak, lapikokoa…, aldiz, oso gutxi (egunean, gutxienez sei behar dira). Segidan aipatutako janari multzo bakoitzetik bi jan behar dira egunero: esnekiak; okela, oilaskoa, arraina eta arrautzak; patata, fruitu lehorrak eta lapikokoa; barazkiak; fruta; ogia, zerealak eta pasta; eta olioa, gurina eta koipedun elikagaiak. Horrek edozein adinetarako balio du.

4-11 urte bitartekoen kasuan, honela zehatz daiteke: gosaltzeko, esneki, fruta eta zereal bana (zereala izan daitezke galeta normal batzuk, ogia…); bazkaltzeko, lehenengo patata, pasta, lapikoko edo arroz plater bat, barazkiarekin; bigarren, arrain, oilasko edo okela plater bat, hori ere barazkiarekin; postre bezala, jogurta edo fruta; meriendan, fruta eta zereala; eta afaltzeko, barazki, pure edo zopa; arraina, tortilla edo oilaskoa; eta fruta eta esnekia.

estetika kontua bakarrik, gaixotasuna baizik. Amaia Diaz de Monasterioguren dietistak ohar hau ematen du: "Familiak jakin behar du konponbidea datorrela familia osoak ohiturak aldatzetik, ez umeak bakarrik". Izan ere, umeen loditasuna tratatzeko, erregimenak oso kasu larrietan bakarrik ipintzen dira; besteetan, aholku batzuk jarraitzean datza tratamendua. "Menua ondo antolatu behar da, ezer debekatu barik, eta umeari lagundu pisu berari eusten hazten ari den bitartean. Horretarako, ekintza sedentarioen ordez, familian egiteko jokoak eta ariketak proposatzen dizkiegu; elikadura zain dezatela etxean; umeak sukaldera sartu eta elikatzen irakatsi…", gaineratzen du Amaia Diaz de Monasterioguren dietistak. Haren esanetan, Euskal Herriko betiko dieta oso egokia da.

Ariketa fisikoari dagokionez, Eskualde Ospitalea orain dela gutxi saiatu zen hara sarri joaten diren umeendako gimnasia berezi ikastaroa sortzen, baina, interesa egon bazegoen arren, ez zen aurrera atera. Ariketa norberak antola dezake, baina kontuan hartu behar da ume gizenek askotan ezin dutela euren ikaskideen ariketa berberak egin. Garrantzitsua da umeak euren ahalmenaz gainetik ez behartzea eta ariketa eurei egokitzea, ez alderantziz: adibidez, korrika saio arinak, aerobika… Gurasoek autoa garajean uztea eta umeari oinez joanaraztea hasiera ona izan daiteke.

Umeen loditasunaren arazoa, neurri handi baten, bizimodu eta ohitura kontua da; horregatik, horri ekiteko modu bakarra da ohitura horiek aldatzea. Baina familiek kontuan eduki behar dute tratamendua ez dela aldi baterako, bizitza osorako kontua baizik.

Ikaratzeko modukoa

AEB-ETAN, 136 KILOTIK GORA

AEBetan, 2-5 urte arteko umeen %10 lodi zegoen 2002an (1994an, %7) eta adituek diote seguruenik, txarrera egin duela ordudanik. Pennsylvaniako aditu batengana hainbat ume joan da 136 kilotik gora zituena.

IZURRITE GARESTIA

Loditasuna tabakismoa baino gaitz garestiagoa da. Izan ere, loditasunak dakartzan gaitzek osasun gastua %36 handitzen dute pertsona bakoitzeko; eta botiketan gastua, %77. Tabakismoaren portzentajeak dira %21 eta %28, hurrenez hurren.

KOPURU BELDURGARRIAK

Estatuan, ume lodien kopurua bikoiztu egin da azken 15 urteotan; Erresuma Batuan, 20 urtean, kopurua hirukoiztu egin da. Australiar umeetatik laurdena gizenak dira. Hala ere, ez da bakarrik herri garatuen arazoa; Brasilen, ume lodi kopurua %240 aldiz hazi zen 20 urtean (AEBetan, %66 hazi zen).

ESTATUAN

Estatuan, Kanariar Uharteek dute arazo larrien (umeen %18); kopuru txikienak ipar-ekialdean daude, Aragoin eta Katalunian (%9,8). EAE batez bestekoan dago.

UME LODIA, HELDU LODIA

Ezin diogu erru guztia genetikari bota: horrek kasuen %30-40 bakarrik eragiten ditu. Guztira, lodi dauden umeetatik %80 heldu lodiak izango dira. Ohiturak aldatzeko ordua, hortaz.

TELEBISTA

Telebistaren aurrean orduak eta orduak eragin zuzena du: AEBetako ikerketa baten arabera, umeek jaten dituzten kalorien laurdena telebistaren aurrean daudenean jaten dituzte.

OSO EPE LABURREAN

Loditasunak eragindako gaixotasunak ugaldu egingo dira 10-30 urtean. Baina umetan ere arazo larriak dituzte: AEBetan, ume lodien gaineko osasun gastua 35 milioi dolarretik 127ra igo zen 1981etik 2001era bitartean.

SEIN
grupo•taldea
MEMESA
INDUSTRIA HORNIDURAK
OÑATI Tel.: 943 71 80 80 Faxa: 943 71 80 45
ARRASATE Tel.: 943 71 24 25 Faxa: 943 71 22 98
ARETXABALETA Tel.: 943 71 24 11 Faxa: 943 71 20 04

AGIRRE
50 %
Emakumeendako prakak
Pare bat 40€
Bi pare 60€
Bidekurutzeta 18. Tel.: 943 76 72 67
BERGARA

Ikastaroak
Informatika Programazioa
AKADEMIA BASTIDA
Pascal
Datu estruktura
Datu baseen diseinua
Cobol
C-n programazioa
943 79 35 33
bastida@bastida.es

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2005eko urtarrilaren 21a

GOIENKARIA

Arrasateko Bedoña auzoko Artazubiaga baserrian ere batu dute txakolina aurten. Otxia izenarekin komertzializatzen dute.

Getariako txakolina bezala, gure ibarrean egindakoa ere prest dago

Oraingo domekan Angiozarko Parteittin aurkeztuko dute uzta berria

ENEKO AZKARATE

Getariako jatorri izenaren barruan dauden txakolindegiek Getariako Txakolin Eguna ospatu zuten astelehenean, San Anton egunean, Getarian. Aurtengo uzta dastatzeko aukera izan zuten.

Urte ona izan da 2004koa txakolinarendako. Hori diote, behintzat, Getariako jatorri izenaren barruan dauden txakolin egileek eta baita gure ibarrekoek ere.

17 txakolin upeldegi daude Getariako jatorri izenaren barruan. 117 hektarea dituzte gaur egun, baina datozen urteotan 200 edo 220 hektarea izatea dute helburu. Bi milioi mahats inguru batu zituzten iaz, eta ia bi milioi botila merkaturatuko dituzte. Joan zen astelehenean, 1.500 botila ireki zituzten Txakolin Egunerako.

Getaria, Zarautz, Orio eta Aiako herrietan batzen den mahatsarekin egindako txakolina da jatorri izen horren barruan dagoena.

ETA DEBAGOIENEAN?

Gure ibarrean ere bada txakolin egilerik. Lau dira, hain justu ere, aurten ere txakolina egingo dutenak: bi Arrasatekoak dira, Bedoñako Artazubiaga baserrikoak, batetik, eta Hegiaundi baserrikoak, bestetik; Oñatin, Upainen egiten dute; eta Bergaran, Amatiñon.

Hegiaundin, Kataide izenarekin komertzializatzen dute txakolina. Jabier Arregi arduratzen da horretaz. Hark esan digunez, parerik gabekoa da aurtengo txakolina, iazkoarekin alderatuta askoz hobea, ez hain gozoa eta oso orekatua. Santamasetan aurkeztu zuten aurtengo uzta eta oraingo domekan Angiozarko Pareitti auzoan egongo da dastagai. Artazubiagan Otxia markarekin komertzializatzen dute etxean egindako txakolina.

Debagoieneko txakolin egileek Gipuzkoako jatorri izendapena sortu nahi dute

GIPUZKOA JATORRI IZENA

Ibarreko txakolin egileek, baina, arazo bat daukate. Izan ere, ez dude Getariako txakolina jatorri izenaren barruan eta horrek buruhausteak sortzen dizkie. Arazo horri irtenbidea emateko Gipuzkoako beste txakolin egile batzuekin elkartu dira. Haien helburua da Getariako jatorri izenaren barruan ezin badira sartu, Gipuzkoako jatorri izena sortzea, Bizkaian eta Araban gertatzen den bezala lurralde osoko ekoizleak jatorri izenaren barruan egon daitezen, eta ez Gipuzkoako lau herritakoak bakarrik. Horretarako, elkartea sortu gura dute. Gipuzkoako dozena bat lagun batuko lirateke elkarte horretan, gure ibarrekoez gain, Zumaia, Hernani, Mutriku, Igeldo, Olabarria, Hondarribia eta Villabonako baserritarrak. Guztien arten 25 hektarea dituzte eta urtean 250 mila litro txakolin egiten dituzte.

Ibarreko hainbat eraikin arkitekturako liburuan

'Gipuzkoa-guía de arquitectura 1850-1960' izena du

MARIA AGIRRE

Arkitekturaren ikuspegitik 1850etik 1960ra bitartean Gipuzkoan egin ziren eraikin esanguratsuenen gida kaleratu du Diputazioak. Plazak, eskolak, lantegiak eta etxeak aipatzen dira, eta horietako hainbat Debagoienekoak dira.

Bergarari dagokionez, epe horretan lantegi eta etxe garrantzitsuak eraiki zituzten. *Gipuzkoa- guía de arquitectura 1850-1960* liburuan, Bergarako 13 eraikin aipatzen dituzte argazkiz lagunduta, eta zein urtekoak eta zein arkitektok egindakoak diren argituta. Union Cerrajera, Tornilleria Deba, Algodonera de San Antonio eta Idarreta hotelaren berri ematen da, besteak beste.

Oñatiren kasuan ere hainbat dira erreferentziak: gaztelekua eta ikastolaren eraikina, Foru plaza eta Don Pedruena etxea, Arantzazuko basilika ahaztu barik. Elgetari dagokionez, udaletxe berria; eta Aretxabaletan, udaletxe izandakoa aipatzen dira. Eskoriatzatik Gaztañaundi kalea azpimarratu dute, eta Leintz Gatzagatik, Arbitrioen etxea. Arrasateren gainean, berriz: Gelma lantegia, komunisten etxeak, San Juan taldea, Union Cerrajera eta Santa Ageda, beste hainbaten artean. Liburua www.*gipuzkoa.net* webgunean ere kontsulta daiteke.

DEBAGOIENEANLABUR

Batasunak proposamena aurkeztuko du Elgetan, Eskoriatzan eta Arrasaten

Batasunak abenduan aurkeztu zuen Arrasaten, Bergaran eta Aretxabaletan bakerako proposamena. Eta, egunotan, berriro antolatuko dituzte hitzaldiak proposamen horren nondik norakoak azaltzeko. Hain justu ere, Elgetako liburutegian gaur iluntzeko 8etan aurkeztuko dute; datorren martitzenean, 25ean, Eskoriatzako kultura etxean aurkeztuko dute 7etan, eta otsailaren 2an, eguaztena, Arrasateko Monterronen. Hizlariak ez dituzte zehaztu, baina Anoetako belodromoan azaroan aurkeztu zuten proposamena, "gatazka politikoa gainditzeko metodologiaren" berri emango dute.

Arrasateko eta Oñatiko aitonak hil dira egunotan, 102 eta 101 urte zituztela

Patxi Egidazu, Arrasateko gizon zaharrena, hil egin zen herenegun. 103 urte beteko zituen apirilaren 25ean. Mutilzaharra, Udalako Dolara baserrian bizi zen. Igeltsero lanean urte askoan ibilia, 65 urterekin erretiratu zen, baina ganadua ez zuen utzi 98 urterekin jausi eta min hartu zuen arte. Orduan jo zuen lehenengoz medikuarengana. Bestalde, Pedro Nieto, Oñatiko gizon zaharrena, joan zen eguenean, hilaren 13an, hil zen, San Martin egoitzan. Martxoan 102 egingo zituen.

Udalatxeko obrak geldiaraztea eskatu du Ezker Batuak, "legez kanpo daudelako"

Ezker Batuko Arrasateko zinegotzi Ander Rodriguezek salatu du Udalatxen egin dituzten meatze jarduerak legez kanpo daudela, obra horiek egiteko baimenik ez dutelako eskatu; horren ondorioz, jarduera horiek geldiaraztea eskatu du. Adierazi duenez, Udalatxen galeriak egiteko lanak baimen barik egin izanagatik Arrasateko Udalari ez zaizkio ordaindu lan horrengatik dagozkion 120.300 euro.

LOIOLA KLINIKA

BEGIETAKO KLINIKA
Begietako mikrokirurgia:
Kataratak: Miopia / Hipermetropia.
Bitreo-erretinako gaixotasuna: Erretina-askatzea / Laser tratamendua. Termoterapia / Makulako gaixotasunak / Erretinopatia diabetiko konplikatua

Manuel Salaberria *Mediku oftalmologoa*

AZPEITIA / KLINIKA: Loiola auzoa 25 C. T: 943 15 17 52. F: 943 15 18 91
DONOSTIA / KONTSULTA: Zubieta 11-1. T: 943 44 46 79

Deba ibarreko berbak jasotzen dituen liburua argitaratu berri dute

Juan Martin Elexpuruk idatzi du eta otsailaren 11n aurkeztuko dute

ENEKO AZKARATE

Bergara aldeko hiztegia, Leintz-Aramaio, Oñati eta Eibar inguruko berbekin osotuta **izeneko liburua aurkeztuko du Bergarako Udalak otsailaren 11n. Juan Martin Elexpuruk idatzi du liburua.**

GOIENKARIA

Juan Martin Elexpuru idazle uberarrak idatzi du liburua.

Liburuak 770 orrialde ditu eta Juan Martin Elexpuruk 1996an, EHUko Filologia fakultatean, aurkeztu zuen doktoretza tesian oinarrituta dago. Oso erabilgarria da Deba ibarreko berbak jasotzen dituelako, esanahia azalduta eta adibideak jarrita. Gainera, hainbat hitzen marrazkiak eta argazkiak ere badakartza, berbekin azaldutakoa laguntzeko.

Josu Okina, Gorka Ortega, Ibon Serrano eta Julen Zabaleta dira marrazki horien egileak. Liburuan agertzen diren hainbat berba GOIENKARIAk argitaratu ohi ditu herrietako edizioetan, marrazki eta guzti.

Ikastetxeetan eta euskaltegietan erabiltzeko oso interesgarria da. "Bertako euskaren ondarea jaso eta erabilgarri jartzea beharrezkoa da; gainera, orain argitaratu dugun liburua oinarrizko materiala da beste hainbat erabilera izan ditzan: monografia lan txikiagoak argitaratzeko, esamoldeak direla, ez dakit zer arlotako hiztegi berezitua, umeen hizkerako hiztegitxoa", dio Bergarako Udaleko Euskara teknikari Estepan Plazaolak.

30 EUROREN BUELTAN SALDUKO DA

Hiztegiak hartzen du liburuaren zatirik handiena; gainera, gaztelania-euskara hiztegia ere badauka. Hiztegiaz gain, ordea, besteak beste, idazteko irizpideak, aditz-taulak, deklinabide-taulak eta sarrera sakona ere jasotzen ditu liburuak. Hitzaurrea Ibon Sarasolak egin du.

Liburua, esan bezala, otsailaren 11n aurkeztuko dute, eta orduantxe ipiniko dute salgai, seguruen 30 euroren bueltan. 2.000 ale argitaratu dituzte.

Aitona eskoriatzakoa zuen andrea, Amerikako aberatsenen zerrendan

Maria Asuncion Aranburuzabala deitzen da eta Mexikon bizi da

Munduko pertsona aberatsenen zerrenda ateratzeagatik ezaguna den *Forbes* aldizkarian agertu da Maria Asuncion Aranburuzabalaren izena. Aldizkariaren arabera, Latinoamerikako emakume aberatsena da eta munduko rankingean 377. postuan dago. Modelo garagardo enpresan -Corona garagardoak saltzen dituenahainbat akzio ditu, besteak beste. Hain justu, Maria Asuncion edo Arantza izenez ezaguna den 40 urteko emakumearen aitona zen Felix Aranburuzabala. Eskoriatzan jaio zen Felix 1866an, eta Mexikon hil 1972an. Eskoriatzan, baina, ezagunagoa da, ustez haren anaia zen Celestino Aranburuzabala. Hura ere Mexikora joan eta dirutza egin zuen, eta hil ondoren dirua utzi zuen Eskoriatzarako. Maringoa izanik, kanposantua egiteko dirua eman zuen, eta haren omenez jarri zioten kale bati Aranburuzabala izena Eskoriatzan. /MARIA AGIRRE

Aizkorriko parke naturalaren proiektua jendaurrean dago

Debagoieneko lau udalerriri eragingo die planak

MARIA AGIRRE

Jendaurrean dago Aizkorri-Aratz parke naturalaren plana. Behin-behineko onarpena du proiektuak, baina orain jendaurrera atera dute, alegazioak aurkezteko aukera izan dadin. Oñati, Aretxabaleta, Leintz Gatzaga eta Eskoriatzako udaletxeetan dago eskura.

Debagoieneko lau herriri eragingo die Aizkorri-Aratz inguruak parke natural izendatzeko planak: Oñati, Aretxabaleta, Leintz Gatzaga eta Eskoriatzari. Joan den azaroan behin-behineko onarpena eman zion Jaurlaritzak proiektuari, eta orain, jendaurrean jarri dute. Otsailaren 22a baino lehen alegazioak aurkezteko aukera izango dute herritarrek. Aizkorri-Aratz ingurua parke natural izendatuz, lursail horien erabilera arautu egin nahi dute.

Debagoienari dagokionez, bereziki Oñatiko lursailei eragingo die proiektuak. Oñatiko 4.239 hektarea sartuko dira Aizkorri-Aratz parkean, eta horietatik 2.579 jabetza pribatukoak dira. Eskoriatzaren kasuan, orokorrean 1.556 hektarea izango dira, eta 1.342 dira pribatuak. Bestalde, 947 hektarea Aretxabaletari dagozkio, 781 pribatuak izanik. Leintz Gatzagaren kasuan, 780 hektarea sartuko dira proiektuan eta horietatik 196 dira jabetza pribatukoak. Hala ere, horrek ez du esan nahi Jaurlaritzak jabetza pribatuko lurrak erosiko dituenik. Esan bezala, lursail horiek arautu egingo dituzte.

HITZALDIA EGUENEAN ARETXABALETAN

Proiektuak duen garrantziaz ohartarazita eta informazioa ematea beharrezkoa dela eta, Aretxabaletako Udalak hitzaldia antolatu du. Josu Ezkiaga Jaurlaritzako Bioaniztasuneko zuzendaria izango da datorren egunean, hilak 27, Aretxabaletan, Aizkorri-Aratz parke naturalaren proiektuaz berba egiteko. Maiatzean, behin-behineko onarpena eman nahi dio planari Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak.

Aizkorri-Aratz parke natural izendatuz, lursail horien erabilera arautu nahi dute

GOIENKARIA

Aizkorriko argazki panoramiko horretan ikus daiteke zein ederra den ingurua.

autonomoentzako eta mikroenpresetarako doako **mintegiak**

Internet: Zer eskatu behar diot Web garapenerako zerbitzuen hornitzaileari?

Debagoiena
urtarrilak 25
ARRASATE
Mondragon Goi Eskola Politeknikoa (Iraunkor)
Ordutegia: **18:00-20:00**

Jakin ezazu zer onura ekar ditzaketen Informazioaren Teknologia Berriek Enpresa Txikien kudeaketan.

Zure Web orrialdea sortu nahi? Hornitzailearekin harremanetan jartzerakoan **jakin beharrekoa** erakutsiko dizugu: nola aukeratu egokiena, bilatzaileen garrantzia...

Informatzeko eta izena emateko:
902 252 595
www.miramondigital.com
cursos@miramondigital.com

Antolatzailea: Miramon Enpresa Digitala

Sustatzaileak: Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco · Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa · euskadi · e-gipuzkoa · SPRI

Servimasa

Sukaldeko altzariendako akzesorio eta osagarriak

Tel.: 943 76 19 95
Faxa: 943 76 07 49
BERGARA

Gutunak

Eskerrik asko

Eskerrik asko, abenduaren 22an, Santamas egunean, Arrasateko azokara hurbildu zineten guztioi. Eskerrik asko, nire postu ondotik pasatu eta nire turroia etxera probatzera eraman zenuten guztioi, baita nitaz galdezka aritu zinetenoi ere. Eskerrik asko.

JOSE MARI ARKAUZ
Eskoriatza

Reala eta borroka politiko-mediatikoak

Sasoi batean Reala gipuzkoarrena zela esatea zegoen modan. Horrela nahi zuten direktiboek eta mezu hori zabaltzen saiatzen ziren. Gaur ez. Gaur, Reala, beste edozein elkarte anonimo bezala, akziodunena da eta euren esku dago guztiona izan beharko litzatekeena, edo gutxienez guztiok geure egin beharko genukeena kudeatzea.

Azken asteotan, klubaren kontrola lortu nahi duten bi talderen arteko borroka nabarmendu da. Ez da berria. Aurreko hauteskundeetan agerian geratu zen nortzuk zituen bultzaka Astizaranen zerrendak eta nortzuk Gibelalderenak.

Orain ikusi duguna borroka haren kapitulu berri bat izan da. Inork ez du eztabaidatzen Realak kapitala handitu beharra daukanik. Zubietan geldirik dagoen mugiezina finantzatzeko soilik kapital ekarpen garrantzitsuak beharko dira. Inbertsioak ezin dira abonatuen sarrerekin ordaindu. Zer esan berriz —eta ez bakarrik Astizaranekin— fitxaketa politika desastreaz. Non dira Cvitanovic, Luis Garcia, Asper, Collet, Peyremans, e.a.? Non eurengatik ordaindu ziren dirutzak? Eta Krauss, Clemente eta Toshackek eramandakoak?

Gauzak horrela, kapital handitzearen arazoa lurperaturik zeuden botere nahiak pizteko aitzakia baino ez da izan. Lehengo galtzaileek, talde mediatiko garrantzitsu batek bultzatuta, orduan galdutakoa berreskuratzeko maniobratan hasi dira Irazustaren populismoa eta *DV*-ko luma distiratsu guztiak norabide berean jarriaz.

Astiazaran ezin da izan Realeko hurrengo presidentea. Ezin da izan, bere lehenengo erabakia hartu zuen egunean bere etorkizuna lurperatu zuelako. Realeko presidenteari ez diote barkatu zaleek bere buruari jarritako soldata desproportzionatua.

Gallo eta Gibelaldek ere erre dituzte hurrengo presidenteak izateko aukerak delegazioak desleialki erabiliaz.

Nortzuk izango dira hurrengo hautagaiak? Zaila da asmatzea, baina borroka mediatiko-politiko garratza espero behar dugu zoritxarrez. Athleticen duela gutxi izan da eta ez dago arrazoirik Realean ez dela gertatuko pentsatzeko. Aitzitik, gogorragoa izango da bateron batek zerrenda garbi eta elkartu bat aurkezten ez badu.

I.A. (15.885.278)
Oñati

Mila esker

Danbaka Debagoieneko I. Musika Lehiaketako antolatzaile Goiena Komunikazio Zerbitzuak eta Espaloia Kafe Antzokiak eskerrak eman nahi dizkiete lehiaketan parte hartu duten talde guztiei eta baita, izena eman arren, parte hartzeko aukerarik izan ez dutenei ere; lehiaketa aurrera ateratzeko babesa eman duten etxe eta erakundeei; lehiaketako kontzertuak ikustera joandakoei; Goienako hedabideetan (Goiena Telebista, GOIENKARIA, *Goiena.net* eta Arrasate Irratia) lehiaketa jarraitu dutenei; publikoaren saria aukeratzeko mezuak bidali dituztenei; lehiaketari jarraipena eman dioten hedabideei, eta lehiaketan, modu batean edo bestean, lanean jardun duten Espaloia Kafe Antzokiko eta Goienako langileei.

Zuon guztion laguntzari esker izan da hain arrakastatsua Danbaka, Debagoieneko I. Musika Lehiaketa. Eskerrik asko! Hurrengoan, gehiago eta hobeto!

DANBAKAKO ANTOLAKETA BATZORDEA
Debagoiena

EHNA poltsikoan eta espainola ahoan?

Lehenik eta behin, argi utzi nahi dut idatzi hau ez dela sortu EHNA edo antzeko ekimenen aurka joateko asmoarekin. Ni neu EHNAren aldeko kirolarien argazkian agertzen naiz, eta nire babesa eta bultzada dute eta izango dute horrelako ekintzek.

Lerro hauen bidez, ekimen horren eta antzekoen inguruan ditudan kezkak azaleratu nahi ditut. Eta, bide batez, jendearekin nire hausnarketak elkar banatu.

Ikurrek eta sinboloek garrantzi handia duten munduan bizi gara; gaur egun badute, eta iraganean ere izan zuten. Hala ere, euskaldunak ikur eta sinboloetara mugatzen garela iritzi diot. Aberri Eguna heltzean edo Espainiako Erregea datorrenean azkar asko janzten ditugu etxeko balkoi eta leihoak Ikurrinekin; erraz apaintzen ditugu lepoak lauburuekin; harro sentitzen gara haurrak D ereduan matrikulatu ditugulako... Baina hori guztiori ez al da irudi kontua? Athleticek ere eraman du *Euskadi* hitza bere kamisetan Europan jokatu dituen hainbat partidutan. Turkian oraindik galdezka ibiliko dira *Euskadi* zein kirol arropa edo zein garbigailu marka den!

Espainiar NA eramateak espainol egiten ez nauen bezala, EHNA izate eta erabiltzeak ez nau euskaldun egiten.

Hizkuntzak egiten nau euskaldun. Euskarak egiten gaitu herri, euskarak batzen gaitu eta egiten gaitu nazio. Izandako esperientziagatik esan dezaket kanpoan espainiar ez kontsideratzearen arrazoia hizkuntza izan dela. Euskarak bultzatu du jendea nongoa naizen galdetzera. Ez dut inongo ikur edo sinboloren beharrik izan. Izan ere, atzerriko toki askotan jende gehienak ez daki *Euskadi, Euskal Herria, Pays Basque* eta antzekoak zer diren ez eta non dauden.

Kirolariei argazkia ateratzeko unean bizi eta ikusitakoarekin jarraitu nahiko nuke. Harrigarria izan zen han bildutako Arrasateko kirolariek zein ongi zekiten espainolez entzutea; penagarria zein euskara gutxi hitz egiten zen entzutea. Zer eta EHNAren aldeko ekimen batean! Penagarria!

Monterron parkean bota dituzten zuhaitzek ere itxura aparta zuten kanpotik, enborrek osasuntsuak ziruditen. Barrutik, ordea, gaixorik eta hiltzear zeuden. Ez al gara gu ere ibiliko kanpoko irudia zaintzen barrua gaixorik dugun bitartean? Zein da hemen kontua, demostratzea ala izatea?

URTZI AXPE
Arrasate

Jokin Zaitegi saria eta AED

Arrasate Euskaldun Dezagun euskara elkarteak XVIII Jokin Zaitegi sariketa deitua du dagoenekoz. Dakidanez, Nobel saridunen liburuak itzultzea izan da sariketa horren helburua azken bi urteotan. Ederki aprobetxatu dut aukera Imre Kertész eta J. M. Coetzeeren berri izateko.

Garrantzitsua izan da gure eskualdean euskara elkarteek euskararen normalizazioaren bidean egindako lana. Aldarrikapena eta lan eraikitzailea lotuz, kulturaren edo literaturaren hainbat esparru landuz joan dira: jaialdi promotore bezala batzuetan, lehiaketa garrantzitsuak antolatzen besteetan, eta, besteak beste, gaur egun beste eskualde askotako inbidia den komunikabide sarea sortzen.

2004. urtea oparoa izan da bereziki: gogora datozkit Laixanek antolatutako Galizia, Katalunia eta Euskadiren arteko kultur harremanak estutzeko ekitaldi arrakastatsua, Goibekok Espaloia kafe antzokia martxan jartzen egindako lanak, Jardunen urteroko amodiozko gutunen lehiaketa, eta, nola ez, AEDk antolatutako Jokin Zaitegi sariketari esker 2003. urteko Nobel sariaren nobelaren itzulpena.

Ideia bikaina iruditzen zait AEDk martxan jarritakoa. Gabezia garrantzitsu bat bete du. Ideiak dituen jendea behar dugu gure artean euskararen alorrean eten barik aurrerako bidea urratzeko.

L. LARRAÑAGA
Bergara

Olentzero erdalduna

Ez da lehenengo aldia Arrasateko Udalak euskararekiko duen jarrera salatzen dugula. Egoerak, zoritxarrez, bere horretan jarraitzen du. Arrasaten, udal legealdi berria hasi zenetik, udal batzorde guztietan euskararen presentzia gero eta txikiagoa da. Euskararekiko dagoen jarrera aldaketa horrekin batera, argi dago kulturarekiko gertatu den jarrera aldaketa ere oso nabaria izan dela.

Udal agintean dagoen taldeak ez du interesik zenbait ekintza kultural eta herrikoien antolakuntza herritarren eskuetan lagatzeko. Hori dela-eta, *Tribunal de Cuentas* delakoarekin izandako arazoak argudiatuz, herriko talde guztiek (kultur, kirol zein euskaren ingurukoak) luze egon behar izan dute txakur txikirik ikusi gabe. Bitartean, antolatu diren jarduera eta ekimen ugari kolokan izan dira, baita erakunde batzuen izaera bera ere.

Hori gutxi balitz, arlo horietan ematen ziren dirulaguntza guztiak murriztu dituzte, horrekin batera, inguruan ezagutzen den kultura eta euskara sustatzeko dirulaguntza araudirik zorrotzena erditu dute. Aldiz, ez dirudi araudi horren helburua diru-kontuen justifikazioa denik, herrian mugitzen diren taldeen kontrola baizik.

Bitartean, hedabideen bidez, Euskara eta Kultur zinegotzia Arrasateko kultur taldeei sentsibilitate falta eta erruak leporatzen aritu da. Falta zena! Zinegotzi anderea: kultur taldeek, urte luzeetan zehar, euskararekiko eta herri honen kulturarekiko duten sentsibilitatea soberan erakutsi dute. Udal gobernu taldea da sentsibilitate falta azaldu duen bakarra, agintaldian daraman bi urteetan, kutur talde gehienak haserretzeaz aparte, jai herrikoi guztiak zalantzan jarri baititu. Hori bai, udal gobernu honek Arrasaten izan den *lehenengo* Olentzero erdalduna antolatzeko ohorea izan du.

ION LOPEZ SANTAMARIA ETA
IRAIA ELORTZA ZUBIZARRETA
Arrasate

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate

ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkoroberezibar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga, Natali Martínez,
Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín,
Imanol Elortza, Amaia Mundiñano

PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate

HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola

ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ANTZUOLA

Argiteria sistema berria jarri dute Estalan eta harako bidean

Estala futbol zelaian eta hara joateko bidean argiteria sistema berria jarri du Udalak. Sistema horri esker, aurrerantzean edozein herritarrek izango du aukera argi horiek pizteko. Orain arte kirol elkarteko kideek bakarrik izan dute horretarako aukera.

Bideko farolak pizteko hilerrian dago etengailu edo interruptorea; hori sakatu eta 15 bat minutuz egongo dira argiak piztuta. Futbol zelaiko argiak pizteko, berriz, aldagelen eraikineko horman daude etengailuak. /AINTZANE IRIZAR

EDU MENDIBIL

BERGARA

Gabiria Dorrea berritzeko aukera aztertzen dihardute

Gabiria Dorrea berritzeko aukera aztertzen ari dira Bergarako Udala eta Tavex enpresa. Akordioa egiten badute, bien artean berrituko dute Gabiria Dorrea, eta Tavexek San Antonion dituen langileen bulegoak bertan kokatuko dira. Administrazioak berritze lanen %50 ordainduko du eta beste erdia Tavex enpresak. Aurrekontua 1.500.000 euro inguru izan daiteke, Udalaren arabera.

Edozein modutan ere, Udalak jarraituko du dorrearen jabea izaten eta Tavexek epe jakin baterako izango du Gabiria Dorrea erabiltzeko eskubidea. Gabiria Dorrea XV. mendekoa da eta monumentu kalifikatu izendapena dauka, Jaurlaritzako Kultur Sailak ematen duen gorena. Pizkunde estilokoa, gaur egun egoera txarrean dago eta berritze sakona beharrezkoa du /E.M.

ARETXABALETA

Aizkorri-Arazko natur baliabideen gaineko azalpenak emango dituzte

Aizkorri-Aratz mendilerroko natur baliabideak antolatzeko planaren lehenengo onarpena egin zuen Eusko Jaurlaritzak orain dela hilabete bi. Plan hori ikusgai dago otsailaren 22a bitartean udaletxeko Hirigintza Sailean, alegazioak aurkezteko. Hala ere, plana hobeto ulertu eta kezkak argitzeko Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen saileko Bioaniztasuneko zuzendari Josu Erkiaga etorriko da datorren eguenean, hilak 27. Udaletxeko ganbaran izango da hitzaldia 19:00etan. /M.A.

ARAMAIO

Geroago eta auto gehiago uzten dituzte gaizki aparkatuta

Herri gehienetan moduan, Aramaion ere hasi dira aparkalekuekin lotutako arazoak sortzen. Alkateak jakinarazi digu geroago eta jende gehiagok uzten duela ibilgailua modu eta toki desegokietan. Hala, bada, arazoak bere horretan segitzen badu, neurriak hartuko dituela jakinarazi gura die herritarrei. Gainera, ez da abisatzen duen lehenengo aldia.

Zenbait herritarrek, berriz, adierazi digute neurriak hartzen hasi baino lehen komenigarria litzatekeela aparkalekuak behar bezala mugatzea. /U.M.

ARRASATE

Futbol eta errugbi zelaiak eta tenis pista bi eraikiko dituzte Mojategin

Aurten hasiko dira Arrasateko kirol instalazio berriak egiten. Betiere, udalbatzarrak onespena ematen badio lanen proiektuari. Hain justu ere, kirol gaiez arduratzen den Aukea erakundearen asmoa da urtarrileko osoko bilkuran aurkeztea proiektua.

Aukeako arduradun Ramon Jauregik adierazitakoaren arabera, Udalak onartzen badu, maiatzean edo ekainean hasiko dira lanak egiten. Kalkuluen arabera, 18-20 hilabete barru bukatuko dituzte. Horrenbestez, 2006aren amaierarako edo 2007aren hasierarako kirol instalazio berriak erabiltzeko moduan izango dira.

ERRUGBI ETA FUTBOL ZELAIAK

Kirol instalazio berriekin, zenbait kirol modalitatetan dauden gabeziak bete eta bestelakotan dauden baldintzak hobetu egin nahi dituzte. Hain zuzen, zera egin nahi dute: futbol zelai berria, haren ondoan atletismoko pista, errugbi zelaia, skate-park bat, tenis pista bi, paddlelean jokatzeko bi gune, urruneko agintedun ibilgailuekin ibiltzeko lekua eta bestelako eranskinak (taberna, gimnasioak, biltegia…).

Proiektuaren arabera, hamar-hamaika milioi euro beharko dituzte lanok egiteko. Arrasateko Udalak 1.850.000 euroko partida bat onartu du aurtengo aurrekontuetan horretarako.

Kirol instalazio berriak Musakola auzoan eraikiko dituzte, Mojategi baserriaren lursailetan; hain justu ere, Musakolako kiroldegiaren ondoan. /U.M.

Zertzelada

Udalbatzarrak proiektua onartzen badu, maiatzean edo ekainean hasiko dira kirol instalazio berriak eraikitzen; 10-11 milioi euroko aurrekontua dute

OÑATI

Udaberrian zabaltzeko asmoa dute Arantzazuko harrera-gune berria

Bukatzear dituzte Arantzazu eraberritzeko kanpoko lanak eta laster barruak antolatzen hasiko dira. Harrera-gunean oroigarrien denda, turismogunea eta komunak egingo dituzte, eta udaberri aldean zabaltzeko asmoa dute.

Arantzazu sarreran dagoen eraikina, berriz, lehen eskola izandakoa, oraindik ez dute erabaki nola antolatuko duten. Artzain munduak izango du bere tokia eta Gandiagari eskainitako toki bat izatea ere gura dute. Izena ere jarriko diote, agian, gune horri. Eraikinean toki handia dago, eta beharraren arabera egokitu nahian dabiltza arkitektoak, lanak laster hasteko. /O.E.

OIHANA ELORTZA

Beharren arabera egokitu dute eskola izandako eraikina.

ESKORIATZA

2005eko udal aurrekontua onartu zuen astelehenean udalbatzak

Aurtengo udal aurrekontua onartu zuten Eskoriatzan astelehenean: guztira 6.670.000 euro. Eta hiru inbertsio handi egingo ditu Udalak 2005. urtean.

Santa Ana urbanizazio proiektua martxan jarri, Dorleta auzoa birgaitu eta herriko hainbat lokal egokitzera bideratuko dute aurrekontuaren zati handi bat.

Asteleheneko ohiko osoko bilkuran aurrekontua aurkeztu eta Ezker Batuak eta Elizateak taldeek hainbat alegazio egin ondoren, aho batez onartu zuten aurrekontua. /Z.V.M.

ELGETA

Goibeko elkarteak batzarra egingo du bazkideekin eguaztenean

Goibeko kultura elkarteak urteroko batzarra egingo du datorren astean. Bilera urtarrilaren 26an izango da Espaloia Kafe Antzokian 19:30ean. Goibekotik adierazi digutenez, elkartearen urteko jarduna eta Espaloia izango dira batzarreko gaiak. Bertan presidentea ere aukeratuko dute. Bilerara orain arteko kuota ordainduta duten bazkide guztiak daude deituta. Oraindik bazkide txartela egin ez eta egiteko asmoa dutenek Espaloian bertan dute horretarako aukera. /I.A.

GATZAGA

Guraso elkarteak antolatuta, bihar Gasteizera doaz herriko gaztetxoak

Gasteizera joango dira bihar Leintz Gatzagako hainbat neska-mutiko. Izotz gainean patinatzera joango dira; hala ere, Txiki Parkera joatea nahiago badute, aukera izango dute.

JAKI BILKETA ARRAKASTATSUA

Bestalde, gatzagarrek primeran erantzun diote Saharako errefuxiatuentzat egindako produktu bilketari. Sorginak emakume taldea arduratu zen guztia batzeaz; 90 kilo azukre, ehun lata atun baino gehiago eta konpresa mordoa hartu zituzten. /Z.V.M.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2005eko urtarrilaren 21a

OIHANA ELORTZA

Pello Zabala

FRANTZISKOTARRA

"Iragarpenaren hoztasuna baino gehiago, eguraldiaren berotasuna zabaltzen saiatu naiz urte hauetan"

ELIZA ETA HOMOSEXUALAK

"Hamar lagunen artean astindu ezin daitekeen zuhaitz handi bat da Erroma, eta duen egonkortasun sendo hori da okerrena, baina lasai egon gaitezke iritzi horien aurrean"

HISTORIAREN ZANPAKETA

"Euskal Herrian musikari ugari egon dira, asko penintsula osoan ibili dira, baina historiak zanpatu egin ditu; geure historia hori azaleratzea dut ametsetako lana"

Urte asko egin ditu Pello Zabalak irratian eguraldiaz hitz egiten. Erlojupean gehiago ez bizi izatea erabaki du orain, eta utzi egin du ogibide hori. Edozelan ere, zaila izango da eguraldiaz galdetu gabe Pellorekin hitz egitea.

OIHANA ELORTZA

Iazko Gabon zahar egunean entzun zintugun eguraldia iragartzeko ofizioari agur esaten. Guk pentsatzen genuen betiko izango zinela.

Sasoi bat izan da, etapa bat. Euskal irratiaren sorreratik gertu etorri da. Sorreran beste behar batzuk egoten dira egin behar direnak, eta eguraldiari nola heldu hasi ziren aztertzen. Ni orduan musikarekin nenbilen, eta horrelaxe hasi nintzen.

Egunean bizi gara gaur eta badirudi beti egon dela eguraldi iragarlearen figura, baina 15-16 urte besterik ez du.

Zergatik amaitu da orain etapa hori?

Nik ikusten nuen gaur egungo aurrerapen eta prestakuntza hauekin, Eusko Jaurlaritzako agentzia meteorologikoak bere lana egingo duela, horretarako daude-eta. Banekien nire lanak epe bat zuela, eta pentsatu nuen uda aldean uztea. Baina, bat-batean, "eta zergatik ez dut orain uzten?" galdera egin nion neure buruari. 6.086 musika programa egin ditut azken 22 urteotan, ordu asko dira horiek. Azkenean, tentazioa izan eta erabakia hartu nuen. Ez da arrazoi nagusia izan baina bai bultzada handia. Irratitik eguraldiari buruzko irratsaiotxoa kentzeak ere lagundu du erabakia hartzen. Ikusi nuen nire lana iragarpen soilean gelditzen zela, eta horrek lanerako motibazioa txikitu dit.

Iratzargailurik gabe hasi duzu urte berria?

Bai, ez dut jartzen. 06:45ean jaikitzen naiz orain aste barruan, musikarekin, eta 07:30ean asteburuetan, nahiz eta lehenago esnatu.

Arantzazu ezagutarazteko hasi zinen eguraldi kontuekin irratian. Lortu duzu helburua?

Arantzazu entzun zedin hasi nintzen. Urte haietan Logroño eta Kantabriako entzuleak ere banituen Radio Euskadin eta asko etorri ziren nitaz galdezka. Baita autobusez antolatutako bidaiak ere. Musikarekin ez bezala, eguraldiarekin jende askorengana iritsi naiz. Ez dakit eguraldiaz aritzeko moduagatik izan den edo frantziskotarra izanik sinesgarritasun handiagoa eman didan jendeak. (Barre).

Eguraldia iragartzeaz gain, eguraldia erakutsi diguzu.

Nik esandakoek, agian, baserri inguruan bizi den jendearengan izan dute erro handiagoa, baina jendeak eguraldiari hel diezaion arduratu naiz beti. Eguraldiari buruz egin daiteke iragarpena bera, edo beste zerbaitek lagunduta. Euskaldunok eguraldiarekin arduratzeko eta jarraitzeko joera edo zaletasuna dugu, eta maila horretan ez dugu pronostiko hutsa baino gehiago interesatzen zaio eguraldia bera. Ni maila horretan ibili naiz, gehiago gustatzen eta inportatzen zaidalako. Iragarpenaren beraren hoztasun puntua baino eguraldiaren berotasuna zabaltzen aritu naiz urte hauetan guztietan.

Nik neuk ere asko ikasi dut eguraldiari buruz, eta jendearekiko harremanaz gain, naturarekikoa ekarri dit lan honek.

Aditu bezala entzungo zaitugu aurrerantzean?

Eguraldiari betiko moduan begiratuko diot eta jarraituko dut eguraldiari kasu egiten, baina ez jakin beharrarekin eta ezta erlojupean ere. Tenporak direnean eta horrelakoen arituko naiz, bai. Eta musika kontuekin ere bueltatuko naiz irratira, atsedenaren ostean. Hamabostaldian, adibidez, hortxe arituko naiz.

Liburu berria prestatzen betetzen dituzu eguneko orduak orain?

Martxan dago liburu berria, bai. Hiztegi entziklopedikoaren moduan dago pentsatuta, bai, ez da hiztegi soila izango. Gai bat edo hitz bat hartu eta Euskal Herrian gauza bera esateko dauden moduak batzen ditugu. Hitzaurrean eskatzen dugu jendeak esan diezagula euren inguruan nola esaten duten bata edo bestea, eta seguruenik jarraipena izango duen lana izango da. Martxoan, meteorologiaren egunean daukagu asmoa argitaratzeko. Bestalde, ikastetxeetara eguraldia nola sartu ere aztertzen ari gara, eta besteen liburuak irakurtzeko ere aprobetxatzen ditut eguneko orduak; egun hauetan lau liburu irakurri ditut, bata bestearekin ezberdinak.

Eguraldiaz baino gehiago, Ibarretxe Planaz hitz egiten da egun hauetan, baita igogailuetan ere.

Ez dago gaizki, horri ere heldu behar zitzaion-eta. Presaka aztertu nahi dutela dirudi, baina, behintzat, egin dezatela berba. Orain arteko bidea "ez jauna" esatea eta jendea kartzelan sartzea izan da.

Iruñeko artzapezpikuak homosexualei buruz esan dituenak ere soka ekarri du. Konponezina da oraindik ere harremana?

Puntu horrek egoera argitzen du. Puntu konkretuek ez naute horrenbeste arduratzen, nazionalismoaz eta bestelako gaiez ere antzera mintzatu delako, elizaren posturak berak arduratzen nau gehiago.

Eta nola ulertzen da postura hori?

Batetik zentralismoak ekarri dituen gauzak ere badira eta bestetik Erroma ere hor dago. Zuhaitz handi-handi batekin konparatzen dut nik Erroma: nahiz eta hamar lagun joan zuhaitza astintzera, sagarrak ez dira eroriko. Normalean, ez da ikusten bere egonkortasun sendo hori; bai, ordea, horrelako gauzak datozenean. Eta egonkortasun hori da okerrena.

Gauza bat da esan dezaketena edozein dokumentu mailan eta beste gauza bat da doktrina. Eta doktrina ez da edozein modutan ahoz botatako kontua, baizik ondo pentsatu, eseri eta hausnartutakoa. Eta doktrina eta ebanjelio mailan lasai asko egon gaitezke bai Madrildik nazionalismoaren aurka datozen korronteen aurrean baita homosexualen inguruko horrelako iritzien aurrean ere.

Ebanjelioak dakar hori?

Ebanjelioan argi ikusten da Jesusek berak ere elizan baino denbora luzeagoa egin zuela kalean, jendearekin batera. Nik ez dut inongo zalantzarik homosexualek eta gainerako guztiek elizako ateak zabalik dituztela. Politikan ikusi dugun joera bera gertatu da elizan ere: zerbait aurrera doanean, hurrengoa etorri eta dena itxi. Elizak ere berdin egin behar du? Kontzilioak zabaldu zuena itxi? Ez da ulergarria, ez.

Beste puntu bat dago, oso argi izan behar duguna: elizak nahiz eta burua Erroman duen, diozesi eta elizbarruti bakoitza da eliza. Erromakoa bezain eliza da Donostiakoa, Bilbokoa edo Iruñekoa. Eta Aita Santua bezain garrantzitsua den ordezkari bat du bakoitzak. Eta gu gotzain honekin gara eliza. Gure doktrina eta lotura Juan Mari Uriartek emango digu orain, eta ni ez naiz arduratzen Erromako zuhaitza astintzen, alferrik da-eta. Gipuzkoako kristau elkarteak indar handia dauka, nahiz eta elizak ez diren betetzen, Jesusen garaian ere egun batzuetan bakarrik betetzen ziren. Alde horretatik argi esan nahi nuke indar handiko kristauak daudela Gipuzkoako elizbarrutian, pertsona on eta handi asko.

Hilarion Eslaba konpositore nafarra jaio zen gaurko egunez. Aipatuko zenuen irratsaioan, ezta?

Bai, noski. Era horretan musikari asko aipatzen nituen urtearen bueltan, gertukoenei begira beti. Solfeo metodoa harena da, eta kontserbatorio asko jarri zituen martxan. Maisu handia izan da.

Euskal Herrian musikari ugari izan dira eta asko eta asko penintsula osoan ibili dira. Historiak ez ditu denak horrela jasotzen, gertaera asko zanpatu ditu, eta geure historia azaleratzen badago lan handi bat. Nire ametsetako lana izango litzateke hori, baina aurretik baditut beste eginbehar batzuk.

Jotzen duzu oraindik organoa?

Gutxi, baina bai. Iñaki Beristainek hitzak egiten baditu, nik musika jartzen diet, baina ez dut konposatzen.

ANTZERKIA

LA NONA



CACHIVACHE PRODUKZIOAK



Emakume honek jarduera bakarra dauka:

etengabe jatea

Non:
Arrasateko Amaia antzokian.

Noiz:
Urtarrilaren 23an, domeka,
19:30ean.

Sarrerak aurrez salgai:
Urtarrilak 21, barikua.
urtarrilak 22, zapatua.
18:00etatik 20:00etara.

Sarrerak:
12 euro.
Gazte Txartelarekin 10 euro.

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

CG CONSULTORIO GINECOLOGICO

Talde osoa emakumearen eskura:

- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otalora
- Jose M. Gomez
- Ainhoa Larrea
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- J. Rodriguez
- Mikel Gorostidi
- Mikel Arroyo

Antzutasuna
Erditzeak
Antisorgailuak
Menopausia
Ekografiak (4D)
Titietako gaixotasunak
Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
Hezur dentsitometria

Arrasateko kontsultategia:
Zerkaosteta 17, behea
Tel.: 943 79 20 18

Policlinica Gipuzkoa

Donostia. Tel.: 943 30 82 08
Eibar. Tel.: 943 12 10 21
Irun. Tel.: 943 61 78 88

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2005eko urtarrilaren 21a

Eskiatzera, mendira

Forfait barik, aukera zabalak eskaintzen ditu mendiko eskiak

XABIER URTZELAI

Eski denboraldia hastearekin batera, ibarreko mendi elkarteek inoiz baino lan handiagoa izaten dute eskiatzera joateko irteerak antolatzen. Eski alpetarraz gain, baina, gero eta indar handiagoa dabil hartzen mendiko eskia.

Besaidek antolatuta, hogeita hamar lagun inguru joango dira asteburuan Pirinioetara mendiko eski edo mendizeharko eskia egitera. Hastapen ikastaroa egingo dute, mendian eskiekin ibiltzeko badago-eta zer ikasi. Besaide Mendi Elkarteko Luis Ruiz de Austrik eman digu irteeraren berri: "Jacan beharrezko materiala alokatu eta Portalet (Formigal) ingurura joango gara. Zapatuan egingo dugu lehen saioa, eta eskiatzaileen mailaren arabera taldeak egingo ditugu".

XABIER URTZELAI

Argazkiko koadrila eskiekin igo eta jaitsi zen Udalatxetik, joan den urteko martxoan.

ESKIATZEA BAINO GEHIAGO

Mendiko eskiaren eta eski alpetarraren artean alde handia dago: "Eski alpetarra eski estazioetan egiten da, eta brometan esango dut hori Bilboko Gran Vian ibiltzea bezala dela; hiria eraman dute mendira. Mendiko eskiak beste gauza batzuk ditu, baina jakin egin behar da mendian ibiltzen. Estazioetan segurtasun handia izaten da, baina mendian eskiatzaileak jakin behar du zer den segurua eta zer ez. Horretarako, ikastaroan alpinismoko hainbat kontu azaltzen ditugu, eta babes neurriak erabiltzen ditugu: pioletak, sokak eta irrati uhinak jaso edo bidaltzen dituen aparailua, besteak beste. Aparailu horri esker, elur-jauzi baten ondorioz laguna lurperatuta geratuz gero berehala aurkiko dugu. Pirinioetan egoten den elurrerako oso segurua da".

Hala, lehenengo eguna babes neurriak erabiltzen eta aldapak igotzeko teknika ikasten ibiliko dira: "Irteera horietan eskatzen dugu eski pistetan eskiatzen jakitea. Horrela, azkarrago ikasten da mendian ere eskiatzen". Mendiko eskian gustura jarduteko ezinbestekoa da mendian ibiltzeko zaletasuna izatea: "Mendiko eskiekin jaitsiera ederrak egiteko aukera dago, baina lehenengo, aldapak igo egin behar dira. Hori bai, zapaldu gabeko elurretan ibiltzeak ez du parekorik".

PIRINIOETAN EDO HEMEN BERTAN

Mendiko eskiaz gozatzeko gura beste aukera daude: "Pirinioetan, besteak beste, Belaguatik hasi eta Aran bailarara artean dauden bailarek mendiko eskia egiteko aukera ederra eskaintzen dute. Alpeetan eskiatzea beste kontu bat da, baina gaitzagoa da hara joateko bidaia antolatzea".

Inguruko basoak zuritzen direnean, mendiko eskia egiten dutenek ez dute aukerarik galtzen: "Elurra egiten duenean gero eta eskiatzaile gehiago ikusten ditugu gure mendietan. Gorbeia, Urbia, Aloña... Joan den urtean martxoan izan zen elurteari esker Arrasatetik Angiozarrera eskiatzen joan zen bat baino gehiago".

Materiala eski alpetarrekoa baino garestiagoa da, beste gauza batzuen artean tresna gehiago behar direlako. Ezer erosi aurretik, mendiko elkarteek antolatzen dituzten irteeretan esku hartzea da gomendioa. Prezio onean, behar den guztia izango duzue eskura.

Kirolabur

OÑATI/YERAI VARELA, GIPUZKOAKO AZKARRENA

Joan den asteburuan egin zuten Arraten Gipuzkoako Kros Txapelketa, eta junior mailan oñatiar bat izan genuen podiumeko goreneko postuan: Yerai Varela. Oñatiko gazteak beste 30 korrikalarirekin batera egin zuen korrika, baina Yeraik ez zuen kontrariorik izan, 35 segundoko aldea atera zion-eta bigarren sailkatuari.

ARRASATE/JONATHAN PEREZ VALENTZIAN

Pertika jauzian Euskadiko txapeldun izan berri den Jonathan Perez Valentzian izango da asteburuan Real Sociedad taldearekin. Kluben Arteko Txapelketa egongo da jokoan, eta Arrasatekoak Espainiako Txapelketarako sailkatzea izango du helburu. Horretarako, 4,95 metroko jauzia egin beharko du.

DEBAGOIENA/TRIATLOIA

Antxintxika Debagoiena Triatloi Taldea lanean dabil aurtengo denboraldirako lizentziak egiten. Esan, triatloi taldeak irekita dituela ateak kirol hori ezagutu gura dutenendako. Antxintxikaren helburua da Euskadiko zirkuituan esku hartu ahal izateko ibarreko kirolariei bidea erraztea eta bitartekoak jartzea. Informazioa gura duenak: 660 52 95 16 (Remen) eta 647 52 64 13 (Jose Mari Barrena).

ARRASATE ETA ARETXABALETA/XAKEA

Joan den asteburuan hasi zuten Euskadiko Ohorezko Mailan dabiltzan Arrasate San Andres eta Aretxabaletako Arlutz taldeek liga txapelketa, eta baita ondo hasi ere. Arrasatek berdindu egin zuen Fomento Beraun talde gogorraren kontra, eta Aretxabaletako Arlutzek irabazi egin zion Bilbo Rey Ardid talde faboritoari (1,5-2,5).

BERGARA/PREFERENTE MAILAKO FUTBOL DERBIA

Bergara eta Mondra futbol taldeek derbia jokatuko dute bihar (zapatua, 16:00etan) Agorrosinen. Sailkapenak erakusten duen bederatzi puntuko aldeari esker Arrasatekoak lasaiago zelairatu ahal izango dira, baina Bergarak dituen beharrak bultzatuta, Gordobilen mutilek ezin motibatuago jokatuko dute.

4x4
aukera zabalena

Saltzeko eta erosteko
•
Nahi duzun modeloa ez badaukagu, bilatu egingo dizugu
•
Ia berriak eta bigarren eskukoak (bost urte baino gutxiagokoak)

4QUATTRO4

ZABALDU BERRIA!

4QUATTRO4
Aukerako 4x4 ibilgailuak
Musakola auzoa 21 (Roneo parean)
ARRASATE

Tel.: 605711576 eta 943 79 52 32
E-posta.: 4quattro4@telefonica.net

Egin kirol txartela kiroldegira sartzeko!

Joan den urtean 2.100 lagunek baino gehiagok egin zuten

Herriko kirol zerbitzuetara joan eta kirol txartela egin nahi duzuela esan. Horixe egin behar duzue zuen herriko eta Debagoieneko gainerako kiroldegietako zerbitzuak erabiltzeko.

TXARTELA NOLA EGIN

Bakoitzak nahi duen herrian egin dezake txartela; erroldatuta egonez gero, gutxiago ordaindu beharko da. Hala ere, eskualde guztian txartel bera erabiltzeko aukera ere badago: Debagoieneko kirol txartela esaten zaio txartel horri, eta, izenak dioen moduan, ibarreko edozein kiroldegitan erabil daiteke.

Eraman beharreko dokumentazioa gogoratzeko erraza da: NAren fotokopia, argazki bat, dirua edo kontu korronteko zenbakia, eta ikasle, langabe edo elbarri ziurtagiria, horrela izanez gero. Familia osoarendako txartela ere atera daiteke, eta kasu horretan etxeko kide guztien errolda agiria ere eraman behar da. Txartel hori, gainera, besteak baino merkeagoa izan daiteke.

2005EKO PREZIOAK

Kiroldegi baten bakarrik erabili ahal izateko txartelek prezio ezberdina dute herri batean edo bestean. Adibidez, Aretxabaletan 83 euro balio du 19 urtetik gorakoendako eta Oñatin, berriz, 10 euro gehiago.

Familia osoarendako bonoak, aldiz, prezio bera du herri guztietan: 162,35 euro. Kopuru bera ordaindu behar dute Debagoieneko herri guztietan, eta familia erroldatuta dagoen herrian bertan atera behar dute txartela.

Arrasateko kiroldegiko zerbitzu guztiak erabiltzeko, ordea, gehiago ordaindu behar da. Arlo bustia eta arlo lehorra banandu egiten dituzte Arrasaten, eta lehendabiziko aukera horrekin arlo bakarra erabil daiteke. Hala ere, informazio zehatza Arrasateko kirol zerbitzuen bulegoetan emango dizute. Ondoan duzu telefonoa.

KIROL FESTA 29AN ELGETAN

Bestalde, Mankomunitateko kirol zerbitzuek txapelketen amaiera festa antolatzen dute urtero. 2004ko txapelketen festa datorren zapatuan, urtarrilaren 29an, egingo dute Elgetan.

Askotariko kirol jarduerak egingo dituzte goizean, 10:00etan, Elgetako frontoian. Eta eguerdian, 12:30ean hasita, sari banaketa egingo dute Espaloia kafe antzokian.

MAXIMO ZANGITU GOGORATZEKO

Kirol festan, oroigarri plaka bat emango diote Maximo Zangitu bergararrari Debagoieneko kirolaren alde egindako lanagatik. Plaka haren alargunak jasoko du.

KIROL ZERBITZUEN BERRIAK JASOTZEKO:

Antzuola	943 76 62 46
Aretxabaleta	943 71 26 28
Arrasate	943 77 16 77
Bergara	943 77 91 67
Elgeta	943 76 80 22
Eskoriatza	943 71 53 28
Oñati	943 71 63 75

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
kirol zerbitzua

gasteizon
centro comercial abierto
merkataritza-gune irekia

GASTEIZEN HITZORDUA DUZU

www.gasteizon.com

2005EKO URTARRILAREN 21etik 27ra

CINES ZINEMAK
Florida Guridi

CINES GURIDI ZINEMAK

"CEGADOS POR EL DESEO" Estreinaldia
ASTELEHENETIK IGANDERA: 5,30-8-10,30
"ALEJANDRO MAGNO" (13tik behera ez da gomendagarria)
ASTELEHENETIK LARUNBATERA: 5,30 eta 9
IGANDEAN: 5 eta 8,30
"POLAR EXPRES" (guztientzat)
ASTELEHENETIK IGANDERA: 5,30
"BRIDGET JONES SOBREVIVIRE" (13tik behera ez da gom.)
ASTELEHENETIK IGANDERA: 8-10,30
"14 DIAS DE VIDA"
ASTELEHENETIK IGANDERA: 5,30-8-10,30
"LOS INCREIBLES" (guztientzat)
ASTELEHENETIK IGANDERA: 5,30
"OCEAN'S TWELVE" (13tik behera ez da gom.)
ASTELEHENETIK IGANDERA: 8-10,30
"OBSESION" (13tik behera ez da gom.)
OSTIRALETIK IGANDERA 5-7,45-10,30
ASTELEHENETIK OSTEGUNERA 5,30-8-10,30
"EL AVIADOR"
ASTELEHENETIK LARUNBATERA: 6 y 9,15
IGANDEAN: 5,15 y 8,30

CINES ZINEMAK
Florida Guridi

CINES FLORIDA-GURIDI ZINEMAK

"LOS CHICOS DEL CORO" (guztientzat)
ASTELEHENETIK IGANDERA: 5,30-8-10,30
"TEMPORADA DE PATOS"
ASTELEHENETIK IGANDERA: 5,30-8-10,30
"DIAS DE SANTIAGO" (18tik behera ez da gome.) Estreinaldia
ASTELEHENETIK IGANDERA: 5,30-8-10,30
"SOLO UN BESO"
ASTELEHENETIK IGANDERA: 5,30-8-10,30
"CONVERSACIONES CON MAMA"
OSTIRALETIK IGANDERA 5-7,45-10,30
ASTELEHENETIK OSTEGUNERA 5,30-8-10,30
"LA IMPORTANCIA DE LLAMARSE ERNESTO" (guztientzat)
OSTIRALETIK IGANDERA 5-7,45-10,30
ASTELEHENETIK OSTEGUNERA 5,30-8-10,30
"WHISKY" (13tik behera ez da gom.)
ASTELEHENETIK IGANDERA: 8
"LA VIDA ES UN MILAGRO" Estreinaldia
OSTIRALETIK IGANDERA 5-7,45-10,30
ASTELEHENETIK OSTEGUNERA 5,30-8,30

Kultur Agenda

RTARRILAK 21, Ostirala
MUSIKA
Euskadiko Orkestra Sinfonikoa. Schuberten sinfonia entzun ahal izango da. Sarrerak: 19,50 / 12 €
20:00 Printzipal Antzokia
MUSIKA
Gauekoak: 23:00 Aldabe Gizarte Etxea
Gauekoak programak GGGM taldearen kontzertua aurkeztuko du. Sarrera doan.

URTARRILAK 22, Larunbata
TXOTXONGILOAK
Kixka:18:30. Falerina lorategia. Montehermoso Kulturunearen ondoan

URTARRILAK 27, Osteguna
MAGIA
Arabako Ilusionisten Elkartea. Montehermoso Kulturunearen ondoan. 20:00. Falerina lorategia.
ARTIUM
ERAKUSKETETARAKO DOAKO BISITALDI GIDATUAK
Asteazkenetan (gaztelaniaz)11:30ean/18:00etan
Larunbatetan (gaztelaniaz)11:30ean/18:00etan
Igandeetan (euskaraz)11:30ean/(gaztelaniaz)12:30ean
Museoko sarrera-txartelarekin doan.
Talde mugatuak.Argibideak eta erreserbak: 945 20 90 10

euskaraz ere,

NATURALTASUNEZ

Euskadiko Kutxan euskaraz arreta ematea ez da beste edozein zerbitzu.
Gure lan egiteko modua da.

Zurekin elkarlanean

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Goienka 2a

Egubakoitza / 2004ko urtarrilaren 21a

Kultura eta aisialdia

Urtarrilaren 21etik 28ra

Bitxitegia, etxean

Norberak erabiltzeko, opari egiteko, saltzeko... edo, beste barik, gustuko dutelako, ibarreko askok bitxiak egitea hartu dute zaletasun moduan. Muga irudimenak ipintzen du

Inor ez dadila beldurtu: ez da aparteko tresnarik edo aurrekonturik behar nork bere bitxiak egiten hasteko. Ez eta etxean leku handirik ere. Beste edozein kontutan bezala, hemen ere norberaren ahalmenak eta gustuak agintzen du. Bestela, zelan azaldu ibarreko gero eta jende gehiago aleak kordatzearen zaletasunean engantxatuta egotea?

Elkarrizketatu ditugun lagun batzuek ehunka belarritako pare ere badituzte. Lepokoak, giltzatakoak, buru-orratzak... Denetarik egin daiteke eta, bide batez, bitxiontzia bete. **/14/**LEIRE KORTABARRIA

AZALA: IMANOL SORIANO / JATORRIZKO ARGAZKIA: LEIRE KORTABARRIA

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2005eko urtarrilaren 21a

ESKULANAK/ KOLOREETAKO ALEAK KORDATUZ, APAINGARRI EDERRAK EGIN

Sormena landu eta norbera edertu

DEBAGOIENDAR ASKO, EMAKUME GAZTEAK BATIK BAT, EURENDAKO ETA INGURUKOENDAKO BITXIAK EGITEN TREBEAK DIRA

LEIRE KORTABARRIA

Sormena lantzea eta, era berean, bitxi politak egitea uztartzen dituen eskulana gero eta hedatuago dago gurean ere. Beste edozein zaletasun bezala, merkeago edo garestiago izan daiteke hura ere; betiere, garrantzitsuena da gustura ibiltzea eta irudimena lantzea.

Norberak egindako bitxigintzak ez du aparteko sekreturik, hasieran behintzat; beste edozein zaletasun bezala, merkeagoa edo garestiagoa izan daiteke, eta emaitzak, samurragoak edo sofistikatuagoak. Modu batera edo bestera, zerbait badu zaletasun horrek; izan ere, gero eta debagoiendar gehiagok, emakume gazteek batik bat, aleak kordatzen eta bitxi politak egiten ematen dute aisialdia. "Ez du denbora luzerik eskatzen: etxean, telebista aurrean, edo beste edozein unetan, egin dezakezu. Neu behintzat gustura ibiltzen naiz", dio Nerea Ulezia zale aretxabaletarrak.

Egiteko zaila ez den arren, batzuek esaten dute "garesti samarra" dela. "Berez, hasteko tresnak ez dira asko edo garestiegiak: 15 eurorekin eros ditzakezu hastekoak. Baina materiala etengabe berritu behar duzu", diosku Edurne Hermoso de Mendoza antzuolarrak.

MAKARROIETATIK HARRIBITXIETARA

Debagoienean, mertzerietan edo eskulan dendetan badago salgai hainbat gauza. Kanpoan, denda espezializatuak daude, eta prezioak denetarikoak dira. Esaterako, harri erdi-bitxi bakar bat 6 euro kostatzen da. Ibarreko gehienek kanpoan aurkitzen dute materiala; beste muturrean, etxean aurkitutako materiala aprobetxatzea dago. Zaletasunari neurria hartu gura diotenak makarroiak frijitu eta horiekin has daitezke.

Ibarreko batzuek noizbehinka saldu ere egiten dituzte bitxiok. Inork erdi ofizio moduan ere hartuta du afizioa, Inma Delgado arrasatearrak bezala. Hark Santamasetako eta Erdi Aroko azoketan saldu izan ditu belarritakoak, lepokoak, eraztunak... Eta hilero ere saltzen dizkie ingurukoei. Arrakasta polita du, gainera: "Jendeak oso gustura erosten ditu, eta enkargatu ere egiten dizkidate, ezkontzaren bat-edo dutenean".

Denbora-pasa soil zein gehiagorako, garrantzitsuena da zaletasunarekin ondo pasatzea.

EGINEZ IKASTEN DA

Nork bere kabuz ikas dezakeen zaletasuna da, eta halaxe ikasi dute debagoiendar bitxigile gehienek. Hori bai, "esku trebetasuna behar da", diosku Edurne Hermoso de Mendoza antzuolarrak (irudian). Hark bi urtean ikasi eta hobetu du bere abilezia.



DENETARIKO ALEAK

Norberak erabakitzen du zenbat gastatu nahi duen. Aukeran, material eta kolore guztietako aleak daude, non erosi jakinez gero. Plastikozkoak dira arruntenak, baina beirazkoak, egurrezkoak, harribitxiak... ere badaude.



BIRZIKLATZEA

Irudimena da nagusi, eta etxean erabiltzen ez ditugun lepoko edo bitxien aleak edo osagarriak aprobetxa daitezke apaingarriak egiteko. Botoiak ere oso ondo etortzen dira eraztun modernoak egiteko, argazkikoak bezala.



APAINGARRIARENDAKO APAINGARRIA

Norberak egindako bitxiak oparitu nahi izanez gero, eskulanak benetan gustuko dituenak borobil dezake oparia apaingarriarendako estalki bat eginez. Argazkikoak ere etxean egindakoak dira, kartulinaz eta esku trebeez.

SALTZEA, IRTENBIDE ONA

Debagoiendar askok saldu ere egiten dituzte bitxiok. Gehienondako, noizbehinkako kontua da, eta ezagunei saltzen dizkiete. Hala ere, ondo datorkie: "Salduz gero, zaletasun hau ez da hain garestia", dio Nerea Ulezia aretxabaletarrrak.

Zer behar da hasteko?

Hasteko tresnak mertzerietan edo inguruko eskulan dendetan topatuko ditugu: plastikozko aleak, hainbat kolore eta tamainakoak; pita, alanbrea edo soka, aukeran; belarritako edo lepokoendako krokagailu edo engantxeak; belarritakoendako mugak, aleei eusteko... Artaziak eta aliketa txiki pare bana ere behar dira. Ez da garestia: plastikozko ale hodi bat 2,10 euro inguruan dago; belarritakoendako kako pare bat, 0,30; lokailua, 0,05; pita metroa, 0,10... "Neskatila talde askok guztien artean erosten dute materiala", dio Oñatiko mertzeria bateko arduradunak, Mariasunek.

Oinarriak ere ez dira ikasten zailak: pita ebaki, mugak ipini eta aleak konbinatzen joan.

Liburuak, Internet...

Hirietan, zaletasun horren gaineko denda espezializatuak daude, eta nahi bezainbat material mota dago horietan. Horietako batzuetan, ikastaroak ere antolatzen dituzte. Nerea Ulezia aretxabaletarrak horietako bat egin zuen, baina ez du gomendatzen: "Dakien lagun batek azaltzen badizu, nahikoa da. Liburu onak ere badaude nork bere kasa ikasteko, baina onena da, liburuan ikasitakoaz gain, norbaitek azaltzea", da bere aholkua.

Ez hori bakarrik: Interneten ere badago denbora-pasa honen gaineko informazio gero eta gehiago. Horietako batzuk dira *www.manosmaravillosas.com, www.creaconabalorios.com* edo *www.manualidadesybellasartes.com*. Informazioaz gain, online salmenta ere eskaintzen dute batzuek. Hala ere, ibarreko gehienek gurago dute eurak joan materiala aukeratzera. Gertuko hirietara ez ezik, inork baditu gustuko dendak Bartzelonan ere.

MUSIKA/ LEHIAKETAREN EKARPENA EZ DA BUKATU

Kontzertuak Danbakaren eskutik

DATOZEN HILABETEOTAN, SAILKATU EZ ZIREN TALDEEN EMANALDIAK IZANGO DIRA, TALDE GUZTIEI AUKERAK EMATEKO

LEIRE KORTABARRIA

Danbaka lehiaketa bukatu da, baina ez Danbakaren ekarpena. Izan ere, sailkatu ez ziren taldeei ere aukerak eman nahian, Goienak kontzertuak antolatu ditu. Bestetik, lehiaketaren gainbegiratua eginda, berau aurrera eraman duten guztiei eskerrak ematen dizkie Goienak.

Danbakaren arrakastarengatik eskerrak ematen dizkie Goienak parte hartu duten guztiei: izena eman duten taldeei, laguntzaileei, ikusleei eta, oro har, lehiaketaren inguruan ibili diren guztiei.

Sharon Stoner irabazleak, Enboskada entzuleen sariaren irabazleak eta finalistak zoriondu beharra dago. Sharon Stonerrek diskoa grabatuko du laster, eta Enboskadak musika tresnak erosi ahal izango ditu Gasteizko Carrion dendan. Eta zorionak, SMS mezuak bidali eta, zozketan, saria irabazi duten guztiei.

HILAREN 28AN, KONTZERTUA

Lehiaketaren helburu bat ibarreko taldeei aukerak ematea zen; horren haritik, Goienak, beste erakunde batzuekin elkarlanean, sailkatu ez ziren taldeen emanaldiak antolatu ditu.

Oraingoz, honakoak daude finkatuta: hilaren 28an, datorren egubakoitzean, Txuletons (Oñati), Lukas Prest (Eskoriatza) eta AbyKem (Bergara) taldeek joko dute Elgetako Espaloian, 22:30ean, Kilometroak 2005 jaiaren alde. Kilometroen aldeko bigarren emanaldi bat otsailaren 11n izango da, eta Azkaiter Pelox bakarlariak (Bergara), Dolce Vitak (Arrasate) eta Zenduk (Arrasate) parte hartuko dute.

Bi emanaldiok GOITBk emango ditu. Gehiago antolatzeko lanetan dihardu Goienak. Datozen hilabeteotan zehaztuko dituzte kontzertuen datak eta taldeak, baina aurrera daiteke Debagoieneko gaztetxe eta gaztelekuetan izango direla kontzertuak.

SMS mezuak bidali dituztenen artean, saritutakoak

ARRASATEKO TATTOO DENDAN, 30 EUROKO EROSKETA TXARTELA PIERCING-A EDO TATUAJEAK EGITEKO:
- Ana Belen Verdejo
- Mikel Añibarro
- Vanne Pedraza
- Ibai Moneo
- Xabi Ugarte
- Eider Sarasua
- Asier Alberdi
- Goizalde Perez
- Ibai Irastortza
- Joana Dominguez

ARRASATEKO IRUDI SPORT GIMNASIOAN MATRIKULA DOAN:
- Miren Lazkano
- Carolina Mendiguren
- Edurne Agirregabiria
- Ainhoa Moral
- Naiara Corcuera
- Oier Artzamendi

ISTILU MARKAKO ZAPIA, TANGA ETA GALTZAK:
- Ubane Madera

ZIRT-ZART ILE APAINDEGIAN ILE MOZKETA, MANIKURA-SPA ETA PEDIKURA-SPA PACKA:
- Janire Galindez
- Itziar Larrea
- Joana Uriarte
- Aitor Galdos
- Maria Pilar Garai
- Mikel Bolibar

AFARIA ESPALOIA KAFE ANTZOKIAN
- Josu Zubizarreta

ISTILU MARKAKO EUSKAL ZAPIAK:
- Saioa Arantzabal
- Gorka Lazkano
- Mikel Arrese

ISTILU MARKAKO NESKEN KAMISETA
- Nagore Ojanguren
- Oxel Iriberri
- Alex Abajo
- Naiara Olalde
- Karlos Lasa
- Itsaso Alberdi
- Urtzi Madinabeitia
- Espe Garai

ISTILU MARKAKO MUTILENDAKO PACKA: KAMISETA ETA GALTZONTZILOAK:
- Iñigo Biain
- Iñigo Ferrero

ISTILU MARKAKO MUTILENDAKO KAMISETA:
- Leire Alonso
- Begoña Balantzategi
- Irati Saenz
- Miren Elortza
- Jone Leibar

Saria jasotzeko, deitu 943 71 23 91 telefonora edo etorri zuzenean Goienak Arrasaten duen egoitzara: Nafarroa etorbidea 2 (Saiolan eraikina), lehengo Zerrajera.

Euskal produktuak
gure sukaldean

Urtarrilaren 23tik aurrera
egunero fitxa bat DOAN BERRIArekin

Jantzi mantala eta hasi sukaldean!

Laguntzaileak:
FAGOR
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Euskaldunok behar dugun
berria

50 produktu 50 jatetxe

Fagollaga jatetxea, Zuberoa jatetxea, Mugaritz jatetxea, Akelarre jatetxea, Tubal jatetxea, Etxebarri erretegia, Hartza jatetxea, Argomaniz Paradorea, Borda Berri jatetxea, Currito jatetxea, Les Pyrénées jatetxea, Portalón jatetxea, Fronton jatetxea, Astelena jatetxea, Casa Nicolasa jatetxea, Aloña Berri jatetxea, Martinez jatetxea, Etxanobe jatetxea, Casa Manolo jatetxea, Elkano jatetxea, Kabia jatetxea, Izkiña jatetxea, Jokin jatetxea, Urepel jatetxea, Txoko jatetxea, Leioako Ostalaritza Eskola, Goizeko Kabi jatetxea, Don Pablo jatetxea, Zelai Zabal jatetxea, Etxeberri jatetxea, Pierre Oteiza jatetxea, La Cuchara de San Telmo jatetxea, Casa Julian jatetxea, Etxalarko fonda, Morase jatetxea, Aratz jatetxea, La Boule jatetxea, Ramon Roteta jatetxea, Baserri jatetxea, Hotel Europa jatetxea, Etchepare hotela, Euskal Biskotx erakustokia, Bakea jatetxea, Las Torres ostatu-jatetxea, Alhambra jatetxea, Dolarea jatetxea, Angelita Alfaro, Zortziko jatetxea, Labekoa jatetxea.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2005eko urtarrilaren 21a

Urtarrilak 21-28

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

IKASTAROAK

ARETXABALETA

► **Munduko dantza ikastarorako** izenematea zabalik dago hilaren 29 arte, Arrasateko Tattoo dendan eta Aretxabaletako Azkena tabernan eta kultura etxean. 35 euro da langileendako, 25 gainerakoendako. Ikastaroa otsailaren 1etik apirilaren 26ra arte izango da.

ARRASATE

► **Hainbat ikastarorako izenematea** zabalik dago Emakume Txokoan: barreterapia, altzari txikiak berritzea, autoestimua, asertibitatea eta komunikazioa, jazz eta funky dantza, autoaren mekanika eta mantenua eta tailer libreak. Otsailean hasiko dira. Izena emateko, deitu 943 79 41 39 telefono zenbakira.

DEBAGOIENA

► **Mendiko eski ikastaroa** deitu du Euskal Goi Mendi Eskolak hilaren 24tik 28ra bitartean, Baqueira Bereten. Argibideak, Interneteko honako helbidean: *www.egme.org/cursos/euskera/egme05.html*.

OÑATI

► **Spinning irakasle** titulua lortzeko egun bakarreko ikastaroa izango da Zubikoan urtarrilaren 29an. Izena emateko, diru-sarrera egin behar da: 45 euro bazkideek eta 54 euro gainerakoek, Bankoako 0138 0005 16 0010325161 kontuan.

DEIAK

ARETXABALETA

► **Literatura sari banaketa** egingo du Loramendi euskara elkarteak gaur, egubakoitza, udaletxe zaharrean, 19:00etan.

► **Eskualdeko kondairak** kontatuko ditu Imanol Biain oñatiarrak hilaren 27an, eguena, udaletxe zaharrean, 19:00etan, Loramendi euskara elkarteak antolatuta.

► **Aizkorriko parke naturalaren** gaineko hitzaldia egingo du Eusko Jaurlaritzako Josu Erkiagak eguenean, hilak 27, udaletxe zaharrean, 19:00etan, Udal Ingurumen Sailaren eskutik.

ARRASATE

► **Jokin Muñoz 2004ko Euskadi Sariduna** Monterronen egongo da martitzenean, hilak 25, 18:30ean, *Bizia lo* bere liburuaz berba egitera. Liburua irakurri duten guztiei dei egiten diete hara hurbiltzeko.

► **Arizmendi ikastolak** matrikulazioaren gaineko batzar informatiboak deitu ditu: hilaren 24an, Santa Teresan; 25ean, Umezainzan; 26an, Basabeazpin; eta 27an, Jose Aranan, 18:00etan. Horrez gain, ate ireki egunak ere deitu ditu: Haur Hezkuntzan, Olarten (hilak 24 eta 25), Santa Teresan (25 eta 26), Umezaintzan (26, 27 eta 31), Basabeazpi (28 eta 31) eta Jose Aranan, edozein egunetan. Lehen Hezkuntzan: Almen (urtarrilak 22), Santa Teresa (25 eta 26) eta Gazteluondo (hilak 26), 16:00etan.

► **Ipuin klasikoen** gainean berba egingo du Juan Carlos Alonso psikologoak eguenean, hilak 27, Monterronen, 19:00etan, haur liburutegiak antolatuta.

BERGARA

► **Bedelkar merkatarien elkarteak** egindako zozketan, honako zenbakiak saritu dituzte: 13.847 (lehen saria) eta 24.220, 35.369, 7.263 eta 37.854.

► **San Paulo jaiak** ospatuko dituzte hilaren 25etik 30era bitartean. Besteak beste, egubakoitzerako, hilak 28, bakailao jana antolatu dute, eta izenematea zabalik dago 23ra bitartean.

ELGETA

► ***Orain herria, orain bakea*** Batasunak Donostiako belodromoan aurkeztu zuen proposamenaren gaineko bideo emanaldia eta hitzaldia izango dira gaur, egubakoitza, liburutegian, 20:00etan.

► **Korrika Herri Batzarra** osatzeko batzarra izango da hilaren 25ean, martitzena, kultura etxean, 20:00etan.

ESKORIATZA

► **KZGuneak** honako ordutegia izango du gaur, egubakoitza, eta datorren egubakoitzean, hilak 28: 09:00-13:00.

► **Astrologiaren eta norberaren ezagutzaren** gaineko berbaldia egingo du Enriqueta Caballerok eguaztenean, hilak 26, kultura etxean, 18:30ean, Amuska emakume elkartearen eskutik.

OÑATI

► ***Denbora librea familian: jolasa, telebista… konpartitzeko guneak*** izeneko hitzaldia egingo du Eraberri taldeak hilaren 25ean, martitzena, Beneditarrenean, 19:00etan. Helburua da gurasoek eta ikastetxeak gai horren gaineko irizpideak bateratzea.

► **0-3 urte bitartekoen matrikulazioaz** berba egiteko batzarra izango da martitzenean, hilak 25, Txantxiku ikastolako aretoan, 18:30ean. Ikastolako proiektu pedagogikoa eta funtzionamendua aurkeztuko dituzte.

► **Urtxin loradendako saria** 587 zenbakidun txartelari egokitu zaio. Saria da lorontzi bat lore edo landare eder batekin.

► **Tolosako Aratusteetara** irteera antolatu dute herriko erretiratuek. Otsailaren 8an izango da. Izena emateko, jo Pake Leku egoitzara, astelehen edo eguaztenetan, 18:30-20:00 ordutegian.

ERAKUSKETAK

BERGARA

► **Maria Victoria Medrano** margolariak erakusketa zabalduko du gaur, egubakoitza, kultura etxean. Hil bukaera arte egongo da zabalik: astegunetan, 18:00-21:00, eta zapatu eta jaiegunetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

► **Pello Alberdi** margolari elgetarraren lanak ikusteko aukera dago Nahikari tabernan urtarril osoan.

ELGETA

► ***Aratusteak*** erakusketa zabalduko du Etzozi Gandariasbeitiak eguaztenean, urtarrilak 26, Espaloia kafe antzokian.

OSPAKIZUNAK

ARETXABALETA

► **San Kanuto eguna** ospatuko dute bihar, zapatua. Honako egitaraua prestatu dute: 12:00etan, bolo txapelketa; 14:30ean, bazkaria, dantzaldia… 18:30ean, kalejira; 20:30ean, salda jana; eta 22:30ean, kontzertua.

MUSIKA

ARETXABALETA

► **Karlote y Los 3 Del Patibulo eta Akulu** taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, zapatua, 22:30ean.

BERGARA

► **Jim TNT (Arrasate), Aby-kem (Bergara), Denial (Arrasate) eta Darkness by Oath (Eskoriatza)** taldeek joko dute gaur, egubakoitza, Jam aretoan, 22:00etan. Sarrera 5 euro kobratuko dute.

► KONTZERTUAK

MUSIKA FESTA OÑATIN DJ MAKALA ETA SELEKTAH SOUND SYSTEMEKIN

Gurean ezohiko diren musika estiloez gozatzeko aukera dugu bihar, zapatua, Oñatiko gaztelekuan. Lehenengo, DJ Makala disko jartzaileak emanaldia egingo du; eta gero, Selektah Sound System taldearen txanda etorriko da. Horien artean, Selektah Sound System da gurean ezohikoena. Selektah Kolektiboaren adierazpideetako bat da, eta jamaikarren sound system-etan oinarritutako musika jarri eta, horren gainean, abeslariak aritzen dira, aurrez erabakitako biderik jarraitu gabe. Taldeak dioenez, "momentuan momentuko egoerari erreparatzen zaio eta Kolektiboko partaideek zein kanpokoek parte har dezakete". Helburua da gurean ohikoak ez diren musika estiloei –rapa, reggaea, funkya, soula…– aukera ematea.

Non: Oñatiko gaztelekuan. **Noiz:** bihar, urtarrilak 22, zapatua. **Ordua:** 22:30ean.

CHEVROLET
GIPUZKOA AUTOAK
Otaola Etorbidea, 27 - Eibar - Tel.: 943 20 25 00
Karobi industrialdea z/g - Olaberria - Tel.: 943 88 51 50
www.chevrolet.es

► **VI. Organo Erromantikoaren Nazioarteko Zikloko** egitarauaren barne, Loic Mallie Parisko organojotzailearen emanaldia izango da bihar, zapatua, San Pedro parrokian, 20:00etan. Azkoitia, Bergara eta Azpeitiko udalek antolatzen dute.
► **El Trono de Judas** talde iruindarrak kontzertua eskainiko du bihar, zapatua, gaztetxean, 22.30ean. Hardcore-punk estilokoak dira. Sarrera da 3 euro.
► **Udal Musika Bandak** emanaldia egingo du etzi, domeka, pilotalekuan, 12:30ean.

ELGETA

► **Gari** musikariak *0-tik* diskoa aurkeztuko du gaur, egubakoitza, Espaloia kafe antzokian, 22:30ean.

ANTZERKIA

ARRASATE

► ***La nona*** antzezlana egingo du Producciones Cachivache taldeak etzi, domeka, Amaia Udal Antzokian, 19:30ean.
► **Rai Bueno** ipuin kontalariak 8 urtetik gorako umeendako emanaldia egingo du. Hilaren 25ean izango da, martitzena, Monterronen, 18:00etan.

BERGARA

► ***Igandeetan, piratek jai*** antzezlana egingo du Markeliñe taldeak etzi, domeka, Go-Jam aretoan, 18:00etan. Sarrera da 5 euro, eta txartelak salgai daude Ariznoan, Etxagin, Pol-Polen, Bilintxen eta Tito'sen.

ESKORIATZA

► **4-5 urteko umeei ipuinak** kontatuko dizkie Peio Añorga kontalariak eguenean, hilak 27, liburutegian, 18:00etan.

IKUSKIZUNAK

OÑATI

► ***Por tierra de nadie. Zu eta ni. Bidean…*** musika, poesia eta dantza emanaldia izango da gaur, egubakoitza, Santa Ana antzokian, 22:30ean. Andoni Salamerok, Oñatin irakasle denak, *Zu.Ni.Bi.Bidean* poesia liburua aurkeztuko du, eta Josi Labajosek, Por tierra de nadie liburua. Dantza garaikide emanaldi bat ere izango da. Sarrera da 6 euro.

Zinema

ANTZUOLA

■ **OLARAN ETXEA**

Garfield
Egubakoitza: 22:00.

Los rescatadores
Domeka: 16:30.

ARAMAIO

■ **KULTURA ETXEA**

Doraemon y el secreto del laberinto
Domeka: 17:00.

ARRASATE

■ **AMAIA ANTZOKIA**

Crimen ferpecto
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30.
Astelehena: 20:30.

Garfield
Zapatua: 17:00.

La gran seducción
Eguena, zinekluba: 20:30.

Astelehena, ikuslearen eguna.

BERGARA

■ **NOVEDADES**

La búsqueda
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30.

Contra la pared
Eguena, zinekluba: 20:00.

Astelehena, ikuslearen eguna.

ELGETA

■ **ESPALOIA**

George de la jungla
Domeka: 17:30.

Balseros
Eguaztena: 21:30.

OÑATI

■ **KULTURA ETXEA**

La búsqueda
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Un perro de otro mundo
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.

El último beso
Eguena, zinekluba: 20:00.

Astelehena, ikuslearen eguna.

EIBAR

■ **UNZAGA**

Lemony Snicket
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **RIALTO**

El maquinista
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.

Martitzena, ikuslearen eguna.

GASTEIZ

■ **GURIDI**

Alejandro Magno
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 21:00.
Domeka: 17:00, 20:30.

Closer
17:30, 20:00, 22:30.

14 días de vida
17:30, 20:00, 22:30.

Bridget Jones: sobreviviré
20:00, 22:30.

El aviador
Egubakoitza eta zapatua: 18:00, 21:15.
Domeka: 17:15, 20:30.

Obsesión
17:00, 19:45, 22:30.

Jóvenes
17:30, 20:00, 22:30.

Los increíbles
17:30.

■ **MIKELDI ZINEMAK**

Mar adentro
17:15, 20:00, 22:30.

Ocean's twelve
17:30.

Los increíbles
Zapatua eta domeka: 17:30.

Frío sol de invierno
Egubakoitza: 17:30, 20:15, 22:45.
Zapatua eta domeka: 20:15, 22:45.

La importancia de llamarse Ernesto
20:15, 22:45.

El cónsul Perlasca
17:30, 20:15, 22:45.

La búsqueda
17:20, 19:50, 22:35.

2046
17:15, 20:00, 22:30.

Coffee and cigarettes
17:15, 20:00, 22:30.

Luna de Avellaneda
Egubakoitza: 17:15, 19:55, 22:30.
Zapatua eta domeka: 19:30, 22:30.

Lemony Snicket
Zapatua eta domeka: 17:15.

El maquinista
17:30, 20:15, 22:45.

Martitzena eta eguena, ikuslearen eguna.

■ **FLORIDA-GURIDI**

Los chicos del coro
17:30, 20:00, 22:30.

Días de Santiago
17:30, 20:00, 22:30.

Whisky
20:00.

Temporada de patos
17:30, 22:30.

La vida es un milagro
17:00, 190:45, 22:30.

Sólo un beso
17:30, 20:00, 22:30.

Conversaciones con mamá
17:00, 19:45, 22:30.

La importancia de llamarse Ernesto
17:00, 19:45, 22:30.

■ **ÁBACO-LAKUA ZINEMAK**

Ocean's twelve
16:30, 19:20, 22:00, 00:45.

Polar express
15:50, 18:00.

El aviador
16:00, 19:30, 23:00.

Las novias de mi novio
15:50, 17:55, 20:00.

Los increíbles
15:50, 18:05, 20:30, 22:45, 01:00.

Alejandro Magno
16:00, 19:30, 23:00.

Obsesión
20:10, 22:40, 01:00.

Ong Bak
16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Taxi: derrape total
20:30, 22:45, 01:00.

Salvados
16:15, 18:20, 20:30, 22:45, 01:00.

La búsqueda
22:10, 00:40.

Sky captain
16:00, 18:15.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **YELMO CINEPLEX-GORBEIA**

Los increíbles
12:15, 16:05, 18:30.

Polar express
12:15, 16:45, 18:45.

El mensajero del miedo
22:30.

Ocean's twelve
12:15, 16:30, 19:00, 21:45, 00:10.

El aviador
12:15, 16:30, 20:00, 23:30.

El fantasma de la ópera
21:00, 23:55.

Alejandro Magno
12:15, 17:00, 20:30, 00:00.

Bridget Jones: sobreviviré
18:25, 20:35, 22:45, 00:55.

Ong Bak
18:35, 20:35, 22:35, 00:35.

Obsesión
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Taxi: derrape total
12:15, 16:40, 18:40, 20:40, 22:40, 00:40.

El grito
12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

Closer
12:15, 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.

El lobo
20:45, 23:50.

Lemony Snicket
12:15, 16:00, 18:10, 20:20.

El niño que quería ser un oso
12:15, 16:35.

Supertramps
12:15, 16:20.

Sky captain
18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

Dos hermanos
12:15, 16:10.

La búsqueda
16:25, 19:15, 21:45, 00:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan.

Eguerdiko saioak, domekan.

Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

■ **ÁBACO BOULEVARD**

La búsqueda
12:00, 16:25, 19:10, 22:00, 00:45.

Closer
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Los increíbles
12:10, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Polar express
12:20, 18:05.

El aviador
12:00, 16:00, 19:15, 22:30 (domeka), 23:00 (egubakoitza eta zapatua).

El grito
12:10, 16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 01:00.

Alejandro Magno
12:00, 16:00, 19:20, 22:45.

Los chicos del coro
12:20, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

El fantasma de la ópera
22:30, 01:05.

Llamada perdida
12:00, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:05.

Sky captain
12:00, 17:15, 19:30.

Lemony Snicket
12:10, 16:00, 18:10, 20:20.

Taxi: derrape total
16:05, 20:15, 22:25, 00:45.

Ocean's twelve
12:10, 17:10, 20:00, 22:30, 01:05.

El lobo
22:00, 00:45.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan.

Eguerdiko saioak, zapatuan eta domekan.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

Crimen ferpecto: ●●● / ***Mar adentro:*** ●●● / ***Ocean's twelve:*** ●●

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

KRITIKA

EL AVIADOR

PUNTUAZIOA: ●●●●

ZUZENDARIA: Martin Scorsese
AKTOREAK: Leonardo DiCaprio, Cate Blanchete, Kate Beckinsale.

Gangs of New York estreinatu zenean, zinemari eskainitako tarte honetan aipatu genuen Martin Scorseseren filmek duten arriskua: zuzendariak duen estilo barrokoagatik, askotan handikerian erortzen da. Batzuetan, zuzendariaren estiloak kontatzen duen istorioa eta pertsonaiak ilundu eta jan egiten ditu eta azkenean zalaparta nagusitzen da ikuslea zerbait gogaitu arte. Horrela, oso eszena bikain batzuk ikusteko aukera izaten bada ere, ez da film eder bat lortzen. Baina Scorseseren lan onenetan, eta hau da *El aviador*-en kasua, zuzendaria istorioaren zerbitzura jartzen da, eta bere filmatzeko erari uko egin barik, ikusteko film ederra, erakargarria eta dramatikoki aberatsa lortzen du. Horrela, ikusgarritasunak pertsonaiak eta istorioa indartzeko eta horietan sakontzeko balio du.

El aviador-en ondo bateratzen dira 20ko hamarkadaren bukaeratik 40ko hamarkadaren bukaerarainoko garaiaren deskribapena (Hollywoodeko zinema izarrak, festak, estreinaldiak, Ameriketako Estatu Batuetako industria eta politika nolakoa zen) eta Howard Hughesen (zinema zuzendari eta ekoizle, enpresaria, abiadorea, hegazkinen mundua astindu zuen gizona) izaera obsesibo eta desorekatuaren azalpena: gizon ausarta, kimerak egia bihurtzeko ahaleginetan edozer gauza egiteko eta edonor zapaltzeko gauza dena, eta ezarritako botereen kontra eta bere buruaren kontra etengabe borrokan dabilen gizona.



Scorsesek, oso gidoi ederraren laguntzarekin, film alde batetik epikoa eta beste alde batetik barnekoia lortzen du. Oso pertsonaia geldiezin, abenturazale, kontraesankor (indartsua eta ahula aldi berean) eta atsekabetuaren erretratua denez, filmak abentura, amodioa, politika eta melodrama erabiltzen ditu oso lan liluragarria osatzeko. Kameraren mugimenduak, eszena bat hurrengoarekin lotzeko moduak, jantziak, 30eko hamarkadako *technicolor* delakoa omentzen duten argazkiak, muntaia zoragarriak eta aktoreen lan bikainak istorioari indarra, jariakortasuna eta sakontasuna ematen diote eta *El aviador* Martin Scorseseren lan onenen artean jartzea lortzen dute.

ANTONIO ZABALA

KOROSTI INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
Santi Kutz 8 • LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 25

ETXEBIZITZAK SALGAI
Bergara:
• Erdialdea 80 m². Eguzkitsua.
• Bolu 75 m². Ondo.
• Martoko 85 m². Eguzkitsua.
• Zubiaurre 45m². Berrituta.
• San Pedro 150m². Ondo.
• Zubieta 70 m². Eguzkitsua.
Antzuola:
• Hamaika etxebizitza eraikin berrian. Garajea aukeran.
• Erdialdea 88 m². Berria.
BASERRIAK SALGAI
• Elosun, Angiozarren, Soraluzen eta San Juanen.
LOKALAK ETA GARAJEAK Salgai eta errentan. Eskaintza zabala.

DEBA GARAIA INMOBILIARIA

Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37
Zarugalde 1 Arrasate
T: 943 77 13 02 F. 943 73 12 40

ETXEBIZITZAK SALGAI
BERGARA:
•Erdialdea 86 m². Etxe berria.
•Masterreka 75 m². Berrituta.
•Erdialdea 90m². Oso ondo dago.
•Erdialdea 78 m². Berrituta.
•San Anton 67 m². Berrituta.
•Erdialdea 75 m². Ondo dago.
•Erdialdea 75 m². Ganbara.
•Zubiaurre 55 m². Erdi berriztua.
ANTZUOLA:
•11 etxebizitza berri.
SORALUZE:
•Errekalde 82 m². Ondo dago.
•Rabal 42 m². Ondo dago.
BASERRIAK
•Angiozar 600 m² eta lursaila.
•Elosua 246 m². Egoera onean.

1. ETXEBIZITZAK
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

2. GARAJEAK
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

3. LOKALAK
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

4. LANA
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

5. IRAKASKUNTZA
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

6. MOTORRA
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

7. ANIMALIAK
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

8. DENETARIK
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

9. HARREMANAK
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

10. RELAX

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 76 92 71

sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 16 € (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ARRASATE
ZERBITZARIA BEHAR DA ASTE BUKAERETAN LAN EGITEKO: EGUBAKOITZETAN, ZAPATUETAN ETA DOMEKETAN. 943 79 20 57

BERGARA
TXOFERRA BEHAR DA. KAMIOIAK GIDATZEKO BAIMENA BEHARREZKOA. 609 47 94 43

ARRASATE
ZERBITZARIA BEHAR DA OKINDEGI BATERAKO. 943 77 14 14

ARETXABALETA
SUKALDARI LAGUNTZAILEA BEHAR DA ASTE BUKAERETAN LAN EGITEKO. 647 05 42 75

ARRASATE
ETXETRESNA ELEKTRIKOEN DENDAN PERTSONA BAT BEHAR DA SALMENTARAKO. ALTZARIETAN EZAGUPENA BALORATUKO DA. 943 77 00 34

SORALUZE
ZERBITZARIA BEHAR DA EGUN OSOZ IRISH PUB BATEAN LAN EGITEKO. ESPERIENTZIADUNA IZAN DADILA
943 75 12 12

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. Bi logela, sukaldea, egongela, bainugela, trastelekua. Berritua, bizitzera sartzeko. Gasa eta berogailua kanalizatuta. 168.000 euro. 666 80 09 32 edo 627 21 87 49.

Aramaio. Etxebizitza salgai. Ortua eta txoko edo trasteleku bihurtzeko sotoa dauzka. Deitu 18:00etatik 22:00etara. 615 73 91 28.

Aretxabaleta. 72 m2. Sukaldea, egongela, bainugela, hiru logela, bi terraza. Dena berrituta eta garajea aukeran. 943 79 30 63 edo 656 73 12 80.

Aretxabaleta. Hiru logela, sotoa. Deitu 20:00-22:00 bitartean. 646 06 86 29.

Aretxabaleta. Lau logela, egongela, sukaldea eta bainugela ditu. Bi balkoi. Eguzkitsua. 943 79 02 61.

Arrasate. 160 m2. Kanpoaldera ematen du. Teilatupearekin etxebizitza lotzeko aukera. Jardin pribatua. Bi garaje erosteko aukerarekin. 686 04 65 41 edo 628 53 27 78.

Arrasate. Agerre kalean etxebizitza salgai. 649 55 48 10.

Arrasate. Etxebizitza salgai Erguinen. Erdi jantzia eta eguzkitsua. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainua. 636 21 77 40.

Arrasate. Etxebizitza salgai Zerrajera kalean. 110 m2. Deitu 19:00etatik 21:00etara. 615 70 29 18.

Arrasate. Galizia kalean etxebizitza salgai. 58 metro koadro: bi logela, sukaldea, egongela, komuna eta atondoa. Sotoa ere badauka eta etxea berrituta eta jantzita dago. 665 72 71 65 edo 655 71 86 13.

Arrasate. Sukaldea, egongela, bainugela eta hiru logela. Bi terraza ditu. Erguin auzoan dago. 615 75 04 72.

Arrasate. Uribe auzoan. 80 m2. Erabat berriztatua. Garajea, trastelekua eta ganbara ditu. 659 77 18 57.

Arrasaten. Etxebizitza salgai daukat Uriburun. Goizetan deitu. Concha. 943 79 66 98.

Bergara. Erdialdean etxebizitza salgai. 943 76 05 75.

Bergara. Erdialdean. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Igogailua. Oso eguzkitsua. Prezio ona. 647 58 95 86.

Bergara. Etxebizitza salgai herri erdialdean. 70 metro koadro. Erabat berritua. 70 metro koadroko ganbara du. Hirugarren solairua. 605 73 37 39.

Bergara. Etxebizitza salgai herri erdian. 75 m2, eguzkitsua, berritua. 943 76 72 01.

Elgeta. Etxebizitza salgai. Bigarren solairuan dago. Igogailua dauka. 946 81 71 97 edo 645 71 76 25.

Gasteiz. Etxebizitza salgai. 943 76 34 33.

Oñati. Bi logela, sukaldea, egongela eta bainugela. 677 21 81 19.

Oñati. Kale Zaharrean etxea salgai. 65 metro koadro. Hiru logela, egongela, bainugela, ganbara eta ortua ditu. 690 61 61 23 edo 943 78 13 47.

Soraluze. Etxe berritua salgai. Sukaldea eta bainugela jantzita. Garajea, solairuartea eta txokoa. 615 77 99 20.

102. EROSI

Bergara. Apartamentua edo etxe txiki bat erosiko nuke. Igogailua badu hobeto. 653 71 44 25.

103. ERRENTAN EMAN

Benidorm. Apartamentua igerileku eta aire girotuarekin, hondartza ondoan. 666 18 53 87.

Benidorm. Levante hondartzan apartamentua errentan ematen da. Bi logela eta garajea ditu. 666 67 06 94.

Costa Sancti Petri Chiclana (Cadiz). Apartamentua errentan. La Barrosa hondartzatik oso gertu. 616 14 65 54 edo 678 78 39 10.

Oñati. Ikasleendako etxebizitza Olakuan. Bi logela. 943 78 16 33.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza errentan hartuko nuke. 615 00 32 31.

Arrasate. Etxebizitza errentan hartuko nuke. 626 00 99 67.

Bergara. Etxebizitza errentan hartu nahi dut. 682 22 30 03.

Bergara. Etxebizitza errentan hartuko nuke. 685 70 46 97.

Debagoiena. Etxebizitza edo baserria hartuko nuke errentan. 609 42 15 92.

105. ETXEAK OSATU

Aretxabaleta. Lagun bat behar da etxebizitza osatzeko. 615 72 15 17.

Arrasate. 25 urtetik gorako neska bat behar da beste batekin etxea osatzeko. 626 71 96 80.

Arrasate. Erdialdean dagoen etxebizitza osatzeko laguna behar dugu. 665 70 46 13.

Arrasate. Lagun bat behar dugu etxebizitza osatzeko. Unibertsitatetik eta erdialdetik gertu. Igor edo Xabi. 669 28 05 30 edo 661 73 74 59.

Bergara. Etxebizitza osatzeko pertsona behar da. Euskalduna bada hobeto. Etxeak 3 logela, egongela handi bat, bainugela bat, terraza handi bat, balkoi bat eta sukalde bat dauzka. 685 77 23 72.

Bergara. Logela bat behar dut otsailetik ekaina bitartean. 943 76 91 30.

Bergaran logela hartuko nuke alokairuan. 616 45 00 20.

Gasteiz. Neska bat behar da etxebizitza osatzeko Gorbeia kalean. 337 euro, guztia barne. 665 72 20 85.

Lagun bat behar da etxebizitza osatzeko. 615 72 15 17.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Antzuola. Garaje itxia salgai prezio onean. 670 49 87 40.

Antzuola. Garaje itxia salgai. 670 49 87 40.

Arrasate. Eguzki dorrean garaje itxia salgai. 670 26 34 01.

Bergara. Garajea saldu edo errentan emango nuke, San Lorentzo kalean. 943 76 58 28.

Bergara. Ibaiondon, Lasai Toki elkartearen ondoan. Bi altura ditu. 617 82 36 74.

203. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Garaje itxia llargi plazan. 943 79 08 87.

Arrasate. Garaje leku bat Kontzezino kalean. 655 71 81 84.

204. ERRENTAN HARTU

Bergara. Bolu auzoan garaje bat alokatuko nuke. Interesatuek deitu gauez. 943 76 39 61 edo 652 71 58 93.

Bergara. Garaje itxia hartuko nuke errentan Ozaeta edo Zubiaurre inguruan. 679 62 69 64.

Bergara. Garajea hartuko nuke errentan Bolun edo Burdiñaten. 628 85 92 88 edo 943 76 33 68.

3/ LOKALAK

301. SALDU

Arrasate. Musakolan, 30 m2, kaletik sarrera. 943 79 66 44.

303. ERRENTAN EMAN

Bergara. Bulego moduan erabiltzeko lokala, 20 m2. Fleming Doktorea 3an. 943 76 20 00.

Bergara. Kruz Gallastegi kalean, 100m2-ko lokal komertziala. 943 76 11 89.

304. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Gazte talde batek lokal bat errentan hartu gura du. 680 61 87 72.

Arrasate. Gazte talde batek lokal bat errentan hartu gura du. 680 61 87 72.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

'Au pair' lan egiteko neska euskaldun bat behar dute Ingalaterran. 656 72 05 25.

Arrasate. Emakume euskalduna gertu dago astean bi edo hiru aldiz lan egiteko. 943 77 16 01.

402. ESKAERAK

Bergara. Etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko pertsona bat behar da. Etxean bertan biziko litzateke. 629 33 26 34.

Bergara. Umeak zaintzen lan egingo nuke, arratsaldez. 652 71 86 41.

Aretxabaleta. Emakume batek umeak edo adinekoak zainduko lituzke. 615 72 15 17.

Arrasate. Emakumea gertu etxeko lanak egiteko edo umeak zein nagusiak zaintzeko. 943 08 12 80.

Arrasate. Neska gaztea egubakoitz arratsalde eta asteburutan, edozein lan egiteko prest. 666 16 71 37.

Arrasate. Neska gertu dago pertsona nagusiak zaintzeko. Astean, gauez. Eta asteburuan egunez eta gauez. 666 24 85 95.

Bergara. Emakumea gertu etxeko lanak egiteko nahiz haurrak zaintzeko. Goizez edo arratsaldez. 610 34 97 88.

Bergara. Emakumezko batek tabernan eta zaharrak zaintzen egingo luke lan. 620 36 38 24.

Bergara. Gizonezkoa lan egiteko prest: txofer moduan, garbiketa lanetan, peoi moduan edota propaganda banatzaile. 620 36 38 24.

Bergara. Irakasle ikasketak egiten diharduen neska, arratsaldez umeak zaintzeko gertu. 943 76 01 94.

Bergara. Neska batek haurrak zainduko lituzke. 686 17 52 59.

Bergara. Neska gazte arduratsua lanerako gertu. Adinekoak zainduko nituzke barneko langile modura. 610 03 23 84.

Bergara. Umeak zaintzen lan egingo nuke, goizez edo arratsaldez. 649 24 03 54.

Debagoiena. Anak etxeko lanak eta garbiketa lanak egingo lituzke. Horretaz gainera, haurrak, gaixoak eta nagusiak zainduko lituzke. 667 80 48 70.

Debagoiena. Bi emakume pertsona nagusiak gauez eta egunez zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest. 620 07 95 64.

Debagoiena. Elektrizista, iturgin, peoi edo publizitatea banatzen lan egingo nuke. 685 71 03 17.

Debagoiena. Emakume euskalduna umeak zaindu, etxeko lanak egin edo pertsona nagusiak gauez edo egunez zaintzeko prest. 659 82 75 18.

Debagoiena. Gauez lan egiteko gertu (ahal bada, egunak txandaka). 943 77 16 01.

Debagoiena. Gizon-emakumeak edozein lan egiteko gertu. Presazkoa da. 606 52 39 77.

Debagoiena. Mutil euskalduna edo zein lan egiteko gertu, asteburuetan. 639 27 82 54.

Debagoiena. Neska lanerako gertu. Maider. 653 24 32 90.

Debagoiena. Neska arratsaldeetan lan egiteko prest. 660 91 94 23.

Debagoiena. Neska gaztea edozein lanetarako gertu. 676 07 68 25.

Debagoiena. Neska gertu garbiketa lanetarako edo umeak edo adineko pertsonak zaintzeko. 679 86 41 47.

Debagoiena. Pintore, igeltsero, peoi edo publizitatea banatzen lan egingo nuke. 679 86 41 47.

Debagoiena Mutila gertu lanerako: jatetxeak, eraikuntza, propaganda banaketa... 685 78 78 22.

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

Bergara. Ingeniaritzako ikasle batek lehenengo mailako marrazketa eskolak jaso nahi ditu. 669 00 38 43.

Bigarren mailako DBH ematen duen irakasle partikular bat behar da. 20:30etik aurrera deitu. Lehenbailehen. 943 79 91 68.

Ingelesezko klase partikularrak jasoko nituzke. DBH maila. Astelehen eta ostegunetan. Presazkoa da. Ane. 636 34 18 47.

502. EMAN

Aretxabaleta Ingelesezko eskola partikularrak ematen dira. 943 79 03 83.

Arrasate. Behar bereziak dituzten Lehen Hezkuntzako umeei laguntza eskolak emango nizkieke. 645 73 04 69.

Arrasate. Goi mailako ingeniari industrialak eskola partikularrak ematen ditu. Esperientzia handia. Maila guztiak. Hainbat ikasgai ematen ditut. 630 71 35 83.

Debagoiena. Ingeleseko eta errusierako eskola partikularrak emango nituzke. Maila guztiak. Gabonetan ere. 610 97 49 68.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Aprilia RS motorra salgai. 50 cm³. Merke eta estrekin. 679 05 87 07.

Autokarabana. CI Fiat Ducato. Sei lagunendako. Oso ondo dago. 943 78 15 63 edo 653 70 45 47.

Combi Ford Transit Salgai lekualdaketa arrazoiagatik. Tourneo 200-Commet LX modeloa. 2003ko abuztuan matrikulatua. 669 42 55 63.

Ford Escort familiarra salgai. 1.8 TD. 90 zaldi-potentzia. 8 urte. Egoera onean. Jabi. 667 47 21 42.

Ford Mondeo autoa salgai. Turbodiesel Guia, 2000koa. 618 02 02 58.

Furgoneta salgai. Renault Master 2.2. 2 urte eta erdi dauzka. 650 03 87 33.

GAC 49 cm³ motorra salgai. Berri-berria. 300 euro. 645 73 97 69.

Golf 1.8 autoa salgai. Gasolina. 630 26 01 05.

Golf GTI autoa salgai. SSAF. Egoera onean dago. 652 77 71 08.

KTM motorra salgai. 125 cm3. 2002koa. 656 71 32 47.

Mercedes Vito 110CDI Combi L. 3 urte. Aire girotua, itxitura zentralizatua. 70.000 km. 616 81 15 96.

Opel Corsa GSI automobila salgai. Rallyetarako prestatua. Dokumentazio guztiarekin. 629 97 86 10.

Opel Astra GSI 16 balbulako automobila salgai, 1995ekoa. Beti garajean gordeta. Prezio interesgarria. 680 44 95 51.

Opel Kadett 1.6 S autoa. 607 91 15 37.

Opel Kadett GSI 2.0 autoa salgai. 3.000 euro. Idatzi 'opelsalgai@yahoo.es' helbidera edo deitu telefono honetara. 629 47 30 51.

Opel Vectra autoa salgai. SS-AM. 16 v. 160 zaldi. ABS, aire girotua eta kristal-igogailu elektrikoa ditu. Egoera onean. 658 72 11 49.

Renault Laguna Break 2.2 TD autoa salgai. 1998koa. Urtebeteko bermea. 7.000 euro. 646 20 42 94.

Volkswagen California furgoneta salgai. 77.000 kilometro ditu eta 2000koa da. Oso egoera onean dago. 946 58 29 76.

Yamaha XT 350 trail motorra salgai. IAT orain pasatuta. Egoera onean. 1.400 euro. 686 97 62 75.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Behorra salgai. 943 76 64 65.

Mendiko behorra salgai. 943 78 61 92.

703. EMAN

Txakur txiki bi ditut oparitzeko Bergarako baserri baten. Beltzak dira. 943 76 45 68.

Txakurra emateko gertu nago. Arra. Urtebete. 943 76 21 39.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Argazki kamera. Pentac MZ30 reflex argazki kamera analogikoa. 28-80 objektiboa. Prezio ona. 679 31 62 80.

Artzain txakurkumeak saltzen ditut. 680 55 17 65.

Autorako bolantea salgai. Isota. Citroën Xsararako egokitzapena, opari. 90 euro. 645 73 97 69.

Babarrunak saltzen ditut. 943 76 33 78.

Baserritar jantzia bi edo hiru urteko mutikoarendako. 943 79 41 31.

Errepideko bizikleta salgai. Olmo markakoa, Campagnolo Veloce osagaiekin. Prezio interesgarria. 665 70 75 35.

Eskiak eramateko parrilla salgai, Ford Focus autoarendako. Oso gutxi erabilita eta prezio onean. 687 73 68 74.

Gitarra anplifikadorea salgai. Line6. Berri-berria. Igor. 669 28 05 30.

Goitibehera eta erremolkea opari. Deitu 19:30etik 21:30era. 669 99 72 07.

Intxaurrak eta babak salgai. 943 76 64 65.

Kaskoa salgai Met bizikletarako. Beltza eta berde pixka batekin. Ia berria. Deitu 19:00etatik aurrera. 675 71 14 28.

Kutxa gotor bat salgai. 1,710 m-ko altuera eta 850 cm-ko zabalera. 943 76 10 44 edo 627 84 95 19.

Minolta Dimage 7 kamera digitala salgai. 5.24 megapixel. 28-zoom-eko objektiboa, zoom optikoa x7; 256 MBko memoria. Zorroa egoera onean. 500 euro. 943 79 86 48.

PlayStation-a salgai. Memory Card, bederatzi joko eta aginte bat ditu. 943 76 03 74.

Soinu txikia salgai. 630 26 01 05.

Taxi lizentzia saltzen dut. 607 45 54 84.

Tronboia salgai. Egoera onean. 676 78 37 65.

Zeharkako eski ekipamendu osoa salgai. 605 73 37 39.

802. EROSI

Lursaila erosiko nuke Bergaran edo inguruan. 605 74 45 03.

803. EMAN

Hanketarako reflexoterapia masajeak ematen dira. Etxez-etxeko zerbitzua ere badago. 627 84 95 19.

804. HARTU

Aluminiozko kazola zaharrak hartuko nituzke. 943 79 34 03.

806. GALDU

Betaurreko graduatuak galdu ditut aste honetan Arrasaten. Jokin Zaitegi plazatik Munarrera bidean. Aurkitu badituzu, deitu mesedez. 943 79 26 65.

Kamera digitala galdu dut Oñatin, abenduaren 27an, San Lorentzon, Artxubi inguruan. Canon PowerShot A95 kamera. 646 26 34 05.

Oñati. Zapatu eguerdian, Oñati tabernaren aurrean, ume kotxearen zakua galdu nuen. 943 78 04 28.

807. AURKITU

Bergara. Urtarrilaren 5ean diru-zorro bat aurkitu nuen Irala kalean. Dirua dauka. Galdu zuenak deitu telefono honetara. 617 51 27 71.

Garbi S.L.

PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.

943 33 18 37 (HERNANI)
649 84 67 09 (BERGARA)

9/ HARREMANAK

902. HARREMANAK

Rock-metal talde arrasatear baterako abeslaria behar da. Egubakoitz eta aste bukaeretan entseguak egiten ditugu. 647 52 64 34 edo 650 88 12 35.

DANBAKA

DEBAGOIENEKO I. MUSIKA LEHIAKETA

ESKERRIK ASKO!

Danbaka, Debagoieneko I. Musika Lehiaketako antolatzaile Goiena Komunikazio Zerbitzuak eta Espaloia Kafe Antzokiak, eskerrak eman nahi dizkie:

- Lehiaketan parte hartu duten talde guztiei eta baita,izena eman arren, parte hartzeko aukerarik izan ez dutenei ere.
- Lehiaketa aurrera ateratzeko babesa eman duen erakundeari eta etxe guztiei.
- Lehiaketako kontzertuak ikustera joandakoei.
- Goienako hedabideetan (Goiena Telebista, GOIENKARIA, Goiena.net eta Arrasate Irratia) lehiaketa jarraitu dutenei.
- Publikoaren saria aukeratzeko mezuak bidali dituztenei.
- Lehiaketari jarraipena eman dioten hedabideei.
- Lehiaketan, modu batean edo bestean, lanean jardun duten Espaloia Kafe Antzokiko eta Goienako langileei.

Zuon guztion laguntzari esker izan da hain arrakastatsua Danbaka, Debagoieneko I. Musika Lehiaketa.

Eskerrik asko!

Hurrengoan, gehiago eta hobeto!

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

KAFE ANTZOKIA espaloia ELGETA

Maria Reyes Miner eta **Iñaki Berraondo**k hilaren 19an 25 urte egin dituzte ezkonduta. Maria Reyesen gurasoek, berriz, **Jose Luis Miner** eta **Joxepi Arrieta** bergararrek, 50 urte egin dituzte. Batzuen zilarrezko ezteiak eta besteen urrezkoak ospatzeko, bazkaria egin dute etxeko guztiek joan den domekan, urtarrilaren 16an. Zorionak, guztioi, senideen partetik!

Mari Carmen Mediavilla eta **Antonio Barbero** aretxabaletarrak 1980ko urtarrilaren 19an ezkondu ziren Gatzagako Dorletako santutegian. Familiakoekin ospatu dituzte zilarrezko ezteiak. Zorionak, familiaren partetik!

Angeles Colas eta **Juan Vallejo** bergararrak 1955eko urtarrilaren 9an ezkondu ziren. 50 urte geroago, ezkon egunean bertan ospatu dituzte urrezko ezteiak Bergaran. Zorionak, etxeko guztien partetik!

HILDAKOAK

Engracia Loigorri Basogain. Antzuolan, urtarrilaren 5ean. 95 urte.
Eladio Garcia Navarro. Antzuolan, urtarrilaren 9an. 79 urte.
Pedro Nieto Ruano. Oñatin, urtarrilaren 13an. 102 urte.
Petra Pomares Mendez. Arrasaten, urtarrilaren 13an. 90 urte.
Carmen Jauregi Insausti. Bergaran, urtarrilaren 14an. 89 urte.
Agapita Leturiaga Ariznabarreta. Bergaran, urtarrilaren 16an. 88 urte.
Asunción Erkoreka Iturbe. Arrasaten, urtarrilaren 16an. 72 urte.
Jose M. Uriarte Bereziartua. Arrasaten, urtarrilaren 16an. 82 urte.
Lourdes Oiarbide Oiarbide. Arrasaten, urtarrilaren 16an. 67 urte.
Martina Mujika Ardantza. Bergaran, urtarrilaren 16an. 91 urte.
Francisca Ugarte Lezeta. Oñatin, urtarrilaren 17an. 88 urte.
Maria Sagardoi Otxoa. Bergaran, urtarrilaren 17an. 94 urte.
Pedro Gabilondo Iñarra. Antzuolan, urtarrilaren 17an. 77 urte.
Sonia Meabe Garcia. Bergaran, urtarrilaren 17an. 40 urte.
Ezequiel Da0vila Barquero. Bergaran, urtarrilaren 18an. 96 urte.
Isabel Iturbe Lizarralde. Antzuolan, urtarrilaren 18an. 86 urte.
Jose M. Guridi Txintxurreta. Oñatin, urtarrilaren 18an. 91 urte.
Baldomero Bideantzieta Uriola. Arrasaten, urtarrilaren 19an. 97 urte.
Francisco Egidazu Zarraoa. Arrasaten, urtarrilaren 19an. 102 urte.

ESKER ONA

Agapita Leturiaga Ariznabarreta

Timoteo Altunaren alarguna

Bergaran hil zen 2005eko urtarrilaren 16an, 88 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2005eko urtarrilaren 21ean.

ESKER ONA

Juan Larrañaga Altube

Osintxun hil zen 2005eko urtarrilaren 1ean, 72 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara eta haren aldeko mezara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Osintxun, 2005ko urtarrilaren 21ean.

ESKER ONA

Natividad Jauregi Belar

Usasti baserrikoa, Juan Arangurenen alarguna

Baionan hil zen 2005eko urtarrilaren 14an, 93 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2005eko urtarrilaren 21an.

ESKER ONA

Juan Iriarte Urrutia

Arrasaten hil zen, 2005eko urtarrilaren 13an, 82 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Arrasaten, 2005eko urtarrilaren 21ean.

URTEURRENA

Ciriaco Arriaran Txintxurreta

Urrexolako apaiza

Lehen urteurreneko meza zapatuan, urtarrilaren 22an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiangeruaren Parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Carmen Jauregi Insausti

Carmen Monzon

Bergaran hil zen 2005eko urtarrilaren 14an, 89 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2005eko urtarrilaren 21ean.

URTEURRENA

Silvia Mayo Fernandez

Bigarren urteurreneko meza domekan, urtarrilaren 23an, 12:30ean, Bergarako San Pedro elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Josefa Perez Perez

Eleuterio Elgueroren alarguna

Bergaran hil zen 2005eko urtarrilaren 5ean, 86 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2005eko urtarrilaren 21ean.

ESKER ONA

Sabin Zelaia Arregi

Bergaran hil zen 2004ko abenduaren 23an, 82 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2005eko urtarrilaren 21ean.

URTEURRENA

Julen Olaortua Gabilondo



Lehen urteurreneko meza domekan, urtarrilaren 23an, 12:00etan, Elgetako parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

Urtarrilaren 17a: 027 zozketa

Harpidedunen txokoa

Zorionak irabazleoi!

Gaur, urtarrilak 17, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!
Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!

BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

ESKAINTZA BEREZIA

Harpidetza kuota, 35 euro!

2004 eta 2005 osoko harpidetza kuota: 35 euro.

ASTELEHENEKO **Goienkaria**

astelehenean, **aste bukaera osoa**

027 zozketa saridunak

Hauek izan dira aurreko egubakoitzean argitaratu genituen sarien irabazleak.

Zure izena zerrendan badago, ZORIONAK!

Euskal selekzioaren BIDEO JOKOA eta Euskal Herriaren BUFANDA bat.
- Jose M. Gonzalez Imaz (Arrasate)

Bi gonbidapen urtarrilaren 21ean Elgetako Espaloia Antzokian GARI-REN 'O-TIK' diskoaren aurkezpenerako.
- Amaia Arriola Arza (Antzuola)
- Maika Mujika Zubizarreta (Bergara)

'ASTO BAT HYPODROMOAN' liburua
- Asier Gabilondo Markes (Eskoriatza)

'AITONA-AMONEN OROIGARRIA' liburua
- Iñaki Berasategi Aseginolaza (Bergara)

'LONDRESEN NAGO AITONAREKIN' liburua
- Mari Cruz Ugarte Bergaretxe (Aretxabaleta)

Urtarrilaren 24ko sariak

- **'MAITEMINDUAK'** umeendako liburua.
- **'LONDRESEN NAGO AITONAREKIN'** liburua.

- Bi gonbidapen **FLORIDA-GURIDI** zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko **BOCATTA**n bi menu jateko (saridun bakoitzari bina emango zaizkio).

Kike Amonarrizen **'888 TXISTE' LIBURUA** Argia argitaletxearen eskutik





‘Ilunpean’

EGUBAKOITZA 21 / **21:00 eta 22:30**

Juan Martin Elexpuru idazle bergararrari elkarrizketa

Makina bat lan egindakoa da Juan Martin Elexpuru. Idazle, politikari, korrikalari... Zaletasun eta ofizio horien guztien gaineko galderak egingo dizkio Oihana Elortzak *Ilunpean* saioan. Gaur, egubakoitza, 21:00etan eta 22:30ean.

‘Filma’

ASTEBURUA /* **ikus beheko taula**

‘Rob Roy-ren abenturak’ zapatuan eta domekan

Eskozia XVIII. mendearen hasieran leku arriskutsua zen. Ingelesek George I.a tronuan ezarri zutenean. Nobleak borrokan aritzen ziren erregea beraiengana erakartzeko, eta bidelapurrak bazter guztietan zeuden.

‘Debarri’

MARTITZENA 25 / **21:00 eta 22:30**

Aretxabaletari gainbegiratua egingo diote ‘Debarri’ saioan

Alberto Gorritibereak zuzentzen eta aurkezten duen *Debarri* saioa Aretxabaletara iritsiko da martitzenean. Albertok sakon landuko ditu Aretxabaletako gaiak. Horrez gain, betiko moduan, herriko alkatea elkarrizketatuko du.

‘Danbaka’

EGUAZTENA 26 / **21:30 eta 23:30**

Muted taldearen kontzertua eta bideoklipa ‘Danbaka’ saioan

Danbaka lehiaketako beste finalista baten kontzertua izango duzue ikusgai martitzenean. Muted taldeak Espaloia Kafe Antzokian egindako ekitaldia eskainiko dizue GOITBk. Gainera, taldearen bideoklipa ere eskainiko dute.

TELEBERRIAK

Ia milioi erdi euro batu ditu EiTBk autismoaren aldeko elkarteendako

Martitzenean, hilak 18, eman zuen EiTBk autismoaren aldeko sentsibilizazio kanpainan batutako dirua: 402.406,43 euro.
Autismoaren inguruan lan egiten duten elkarteen ordezkariei eman zien dirua EiTBko zuzendari Andoni Ortuzarrek. Oro har, ekimen ugari egiteko bideratuko dute diru hori: Araban eguneko zentroko unitate txiki bat sortzeko, musika-terapiako programa zabaltzeko, udaleku bat antolatzeko...
Abenduan egin zuten autismoaren aldeko sentsibilizazio kanpaina. EiTBko medio guztiek parte hartu zuten diru bilketan.

Telecinco, Javier Sarda eta Javier Cardenas, zigortuta

Tenerifeko epaitegi batek *Crónicas Marcianas* saioko Javier Sarda eta Javier Cardenas kazetariak eta Telecinco telebista katea zigortu ditu, gutxitu psikiko baten ohoreari kaltea egiteagatik. 15.000 euroko isuna ipini die.
2002ko urrian emititutako gertaera batengatik zigortu ditu epaitegiak. Javier Cardenas kazetariak J.C.H. gutxitu psikikoari elkarrizketa egin zion; haren abokatuaren deklarazioen arabera, elkarrizketak barregarri utzi zuen J.C.H. Besteak beste, haren familiak salatu du elkarrizketaren ostean zenbait hilabetetan J.C.H. etxean geratu zela, irten barik.
Telecincok dagoeneko iragarri du zigorra errekurritu egingo duela.

ASTEKOPROGRAMAZIOA/ Urtarrilaren 21etik urtarrilaren 27ra

EGUBAKOITZA 21	ZAPATUA 22	DOMEKA 23	ASTELEHENA 24	MARTITZENA 25	EGUAZTENA 26	EGUENA 27
13:50 **Marrazki bizidunak:** Kalimero 14:15 **Berriak** 14:45 **Behazulo** 15:15 **Oinak izarretan:** Bestelako Cho Oyu 15:45 **Berriak** 16:15 **Klip@** 19:30 **Emisio hasiera** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:30 **Marrazki bizidunak** 21:00 **Ilunpean:** Juan Martin Elexpuru 21:30 **Gure lanbide zaharrak** 22:00 **Berriak** 22:30 **Ilunpean** 23:00 **Gure lanbide zaharrak** 23:30 **Gaurkoak** 23:45 **Emisio amaiera**	11:05 **Behazulo** 11:35 **Danbaka:** Sharon Stoner 12:35 **Marrazki bizidunak:** Kalimero 14:00 **Oinak izarretan** 14:30 **Filma:** Rob Roy-ren abenturak 15:25 **Ilunpean** Juan Martin Elexpuru 16:00 **Danbaka:** Sharon Stoner 16:30 **Bi eta bat** 17:00 **Klip@** 17:15 **Behazulo** 17:45 **Danbaka:** Sharon Stoner 18:45 **Marrazki bizidunak:** Animaliakeriak 19:30 **Mandio** 20:00 **Derbia** Bergara-Mondra 21:30 **Emisio amaiera**	11:00 **Filma:** Rob Roy-ren abenturak 12:00 **Marrazki bizidunak:** Animaliakeriak 13:10 **Danbaka:** Sharon Stoner 14:15 **Oinak izarretan** 14:45 **Gure lanbide zaharrak** 15:15 **Filma:** Rob Royren abenturak 16:15 **Danbaka:** Sharon Stoner 17:15 **Bi eta bat** 17:45 **Mandio** 18:15 **Klip@** 18:30 **Marrazki bizidunak:** Kalimero 19:45 **Ilunpean** 20:15 **Emisio amaiera**	13:50 **Marrazki bizidunak:** Kalimero 14:15 **Berriak** 14:45 **Ilunpean** 15:15 **Gure lanbide zaharrak:** Lurra 15:45 **Berriak** 16:15 **Klip@** 19:30 **Emisio hasiera** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:30 **Marrazki bizi dunak:** Kalimero 21:00 **Harmailatik:** Bergara-Mondra derbiaren gaineko laburpena 22:00 **Berriak** 22:30 **Harmailatik** 23:30 **Gaurkoak** 23:45 **Emisio amaiera**	13:50 **Marrazki bizidunak:** Animaliakeriak 14:15 **Berriak** 14:45 **Harmailatik** Bergara-Mondra derbiaren gaineko laburpena 15:45 **Berriak** 16:15 **Klip@** 19:30 **Emisio hasiera** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:30 **Marrazki bizidunak:** Animaliakeriak 21:00 **Debarri:** Aretxabaleta 22:00 **Berriak** 22:30 **Debarri:** Aretxabaleta 23:30 **Gaurkoak** 23:45 **Emisio amaiera**	13:50 **Marrazki bizidunak:** Kalimero 14:15 **Berriak** 14:45 **Debarri** 15:45 **Berriak** 16:15 **Klip@** 19:30 **Emisio hasiera** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:30 **Marrazki bizidunak** 21:00 **Bi eta bat** 21:30 **Danbaka** Muted taldearen kontzertua 22:30 **Berriak** 23:00 **Bi eta bat** 23:30 **Danbaka** Muted taldearen kontzertua 00:30 **Gaurkoak** 00:45 **Emisio amaiera**	13:50 **Marrazki bizidunak:** Animaliakeriak 14:15 **Berriak** 14:45 **Bi eta bat** 15:15 **Berriak** 15:45 **Danbaka** Muted 16:45 **Klip@** 19:30 **Emisio hasiera** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:30 **Marrazki bizidunak:** Animaliakeriak 21:00 **Behazulo** 21:30 **Oinak izarretan:** Mount Cook: Marinelaren mendia 22:00 **Berriak** 22:30 **Behazulo** 23:00 **Oinak izarretan** 23:30 **Gaurkoak** 23:45 **Emisio amaiera**
21:00 **Ilunpean**	20:00 **Derbia**	15:15 **Filma**	21:00 **Harmailatik**	21:00 **Debarri**	21:30 **Danbaka: Muted**	21:00 **Behazulo**

GOIENA TELEBISTA / Posta elektronikoa: **goitb@goiena.com** • Telefonoa: **943 71 23 95**

KAMERAAURREAN



“Gogor hasteko gogoa daukat. Euskal Herriko Itzulian aspaldi ez dut parte hartu eta aurten irabazteko gogoz nago. Bestela, Tourra da nire helburu nagusia”.

Igor Gonzalez de Galdeano / Txirrindularia ‘Harmailatik’ (2005/01/17)

“AEK-k ezin du Korrika moduko ekitaldi bat bakarrik antolatu. Euskal Herri osoan egiten da eta gainera 15 egun irauten du. Ezinbestekoa da herritarren laguntza”.

Ibai Redondo / Korrika 14-ko koordinatzailea ‘Berriak’ (2005/01/19)

HAURRENTZAKO MASAJE IKASTAROA

Urte 1era bitarteko haurrak dituzten gurasoei zuzendua

- **LASAITZEKO**
- **HOBETO LO EGITEKO**
- **KOLIKO ETA HORTZALDIETAKO MINAK BARETZEKO**
- **UMEAREKIN KOMUNIKAZIO AFEKTIBOA SENDOTZEKO**
- **INMUNITATE-SISTEMA SENDOTZEKO**

ANTOLATZAILEA
MUGI, Psikomotrizitate Prebentzio eta Laguntza Zentroa
TOKIA
Araba etorbidea 3, 2-3.atea
EGUNAK
Otsailaren 9, 16, 23 eta martxoaren 2 eta 9.
ORDUA
10:30etatik 12:00etara
INFORMAZIOA
MUGI ZENTRUAN
943 77 08 05



Ezagutu geurea barrutik

Idoia eta Julenenean, etxe guztietan bezalaxe, badago hainbat gauza elkarbanatzeko; lana eta jolasak, parreak eta ametsak. Etorri Arizmendi Ikastolara; gure etxea barru-barrutik ezagutuko duzue, eta gure eta zuen ilusioak zer koloretakoak diren jakin ere bai. Geurean baduzu zer ikusi eta zer ikasi.

Ate irekiak:

Lehen Hezkuntza (6-12 urte)

LEHEN HEZKUNTZA	URTARRILA	ORDUA
ALMEN	22, larunbata	16:00-19:00
SANTA TERESA	25, asteartea 26, asteazkena	8:30-19:00
GAZTELUONDO	26, asteazkena	9:00-19:00
SAN VIATOR TXIKI	31, astelehena	9:00-19:00

Informa zaitez!

902 11 20 25

www.arizmendi.ikastola.net

Arizmendi ikastola

geurea, zeurea

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

Argitaratzailea: Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 Arrasate
Egoitza nagusia: **BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: *goienkaria@goiena.com*
Ordezkaritzak: **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: *arrasatepress@goiena.com*
Aretxabaleta 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
Publizitatea: **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: *publi@goiena.com*
Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 18.228 ale. • **Difusioa:** 18.185 ale.
HARPIDETZA: **943 79 21 00** • Posta-e: *harpidetza@goiena.com*

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

EGUBAKOITZA, 2005ko urtarrilaren 21a

Atzeskua

OIHANA ELORTZA

Bixenta Larrañaga/ Esne saltzailea

Zenbat litro batzen dituzue egunean? 80 litro, gutxi gorabehera. Beti ez dugu kantitate bera batzen, baina kopuru horren bueltan ibiltzen gara. Asteburuetan litro gehiago batzen ditugu.

Kalean saltzen duzue etxeko esnea?

Bezero finkoak ditugu: zaharren egoitzara egunero eramaten dugu eta gozotegi askotara ere bai. Postreak eta kroketak egiteko erabiltzen dute gehienek etxeko esnea. Etxera ere jende asko etortzen da esnea erostera, asteburuetan batez ere.

Zenbat behi dituzue?

Zortzi. Egunean birritan jezten ditugu: 07:00etan eta 19:00etan. Txekorrak txikitan saltzen ditugu. Zazpi lagun bizi gara etxean eta guztion artean banatzen ditugu lanak. Gazteenek aitzakia gehiago jartzen dituzte, baina tira.

Egungo ume askok ez dute baserriko esnearen zaporea ezagutuko.

Zoritxarrez ez dakite, ez. Baina jakin dezatela oso esne ona dela, naturala eta osasuntsua.

Beste batzuek kolesterola gehitzen duela esaten dute eta batzuk beldurtu egiten dira, baina nik egunean bizpahiru aldiz hartzen dut etxeko esnea eta oraindik ez dut kolesterolik.

Noiz hasi zinen zu esnea saltzen?

Zapatuan 74 urte bete behar ditut eta azken 60 urte hauetan nabil esnea saltzen. Eskolara joaten nintzenean ere, esnearekin bidaltzen ninduen amak kalera.

Makinekin batzen duzue orain esnea.

Duela zortzi urte, jezte zuzena jarri genuen. Etxetik kanpora ere saltzen dugu esnea, eta osasun sailak behartu egin gintuen makina horiek jartzera.

Behien errapeetatik zuzenean heltzen da zisterna handi batera esnea. Tenperatura hotzean mantentzen du bertan esnea, eta egun osoan izaten dugu, nahi duenak etorri eta hartzeko, bai edateko edo bai sukaldean jakiak egiten erabiltzeko. Osasun aldetik ondo daude behiak, eta elikadura bera asko zaintzen dugu. Esne naturala da gurea, asko saltzen dugu.

Behi eta txahalekin batera, San Antonio ere ez da falta ukuiluan.

Fede handia diot Jainkoari. Hura da nire lagun finkoa. Mundu honetan saltsa handia dago, ideia oker asko. Mingainarekin asko esaten dute batzuek eta besteek, baina emaitza eskasak ikusten dira: makina bat familia bananduta eta elkar ulertu ezinda. Elkarri lagundu behar diogu, sendia batu egin behar da eta bakean bizitzen ikasi behar dugu.

Sarreran, berriz, Ama Birjina. Hari ere fedea diozu?

Handia. Arantzazura sarri joaten naiz eta hilean birritan Ezkioko Ama Birjinari egiten diot bisita. Bergarako moja zaharretan egunero entzuten dut zortzietako meza.

“Postreak eta kroketak egiteko erabiltzen dute gehienek gure etxeko esnea”

“Mundu honetan saltsa handia dago, ideia oker asko. Elkarri lagundu behar diogu, familiak batu eta bakean bizi”

“Behiak osasuntsu daude eta elikadura zaintzen diegu: esne naturala dugu”

► *Bergara / 73 urte / Arane Goikoa baserrikoa*

PIPERRAUTSA

Bonba

Futbola urrundik bizi dudan arren, niri ere iritsi zait Aitor Lopez Rekartek bizi duen une zailaren berri. Esan didate jasaten ari den erasoak minduta daukala Aitor. Eta kolokan dagoela Donostian bizitzeko asmoa, ezkondu eta gero.

Reala ez dabil ondo, baina iruditzen zait ardura nagusia beste nonbait dagoela, zuzendari taldean. Berez, horretarako daude zuzendariak giza multzo guztietan: erabakiak hartzeko eta ardurei eusteko. Eta erabakien ondorioak txarrak direnean, erantzukizunez dimititzeko.

Ezin du aurkeztu balantze onik talde txuri-urdinak. Urangak utzi omen zuen kirol egitasmoa apurtuta, baina diru kontuak ondo, saleroskeeta batzuei esker. Astiazaranek hori ere ez: akziodunak erdibituta daude, jokalariei dirua zor zaie, Gipuzkoarena atzera bota diote eta, larriena, taldeak ez du aurkitzen dagokion tokia, zelaietan eta sailkapenetan. Balantze hain eskasaren errua ezin zaie jokalariei leporatu, are gutxiago jokalari bakar bati.

Zergatik Aitorri eraso egin? Agian, nabarmendu egiten delako lanean eta ardurak hartzen, bereziki taldea txarto dabilenean, hau da, aspaldian sarri. Beharbada, ez delako behar bezain donostiarra, zentzu askotan. Behintzat, ez nuke pentsatzen jarri nahi asmo ilunagotan.

Entzun dut omenalditxo bat antolatu nahi diotela lagunek *Bonba*-ri, animatze aldera. Jaso beza gaur urruneko honen animua.

MIKEL IRIZAR

35 €

Egin zaitez harpidedun eta 2005ean etxean jasoko duzu *Asteleheneko Goienkaria.* Dei bat egin eta kitto!

Harpidedun egiteko:
902 36 38 51
Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

ASTELEHENEKO Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa